



HEZKUNTZA SAILBURUORDEAREN
JARRAIBIDEAK, 2024-2025
IKASTURTERAKO IKASTETXE
PUBLIKOETAKO HEZKUNTZAKO
BERRIKUNTZA-ARDURADUNEI (BeA
figurak) BURUZKOAK.



Aurkibidea

Sarrera.....	5
Lehena. Ikastetxeetako berrikuntza-arduradunen (BeA figura) eginkizuna.....	6
Bigarrena. Ikastetxeko berrikuntza-arduradunen (BeA figura) antolamendu- eta funtzionamendu-egitura	6
Hirugarrena. BeA figuren konpetentzia-profila	7
Laugarrena. BeA figuren funtzioak.	8
Bosgarrena. BeA figuraren atribuzioak.....	11
Seigarrena. 2024-2025 ikasturterako zereginak.....	11
Zazpigarrena. BeA figurei ordu kreditua esleitzeko irizpideak.....	14
Zortzigarrena. BeA figuren formakuntza eta akonpainamendua: <i>BeAk Trebatzen</i> programa	15
Bederatzigarrena. Ikastetxearen Formakuntza-Plana	18
Hamargarrena. Praktika-komunitate profesionalak	24
Hamaikagarrena. BeA figurei akonpainatzeko eta informatzeko, koordinatzeko eta parte hartzeko prozedurak	25
Hamabigarrena. Ikastetxeetako gainerako koordinazio- eta gobernu-organikoekin koordinatzea.....	25
Hamahirugarrena. Jarraipena eta ebaluazioa.....	25
I. eranskina. Ikastetxeei berrikuntzarako ordu-kreditua esleitzeko irizpideak, eta ikastetxeen antolamendua eraginguneetan	28
1. Arabako eraginguneko ikastetxeak.....	30
2. Bilbo Handiko eraginguneko ikastetxeak.....	32
3. Ezkerraldeko eraginguneko ikastetxeak	34
4. Eskumaldeko eraginguneko ikastetxeak.....	36
5. Barrutialdeko eraginguneko ikastetxeak	38
6. Donostia-Irungo eraginguneko ikastetxeak	40
7. Deba-Urolako eraginguneko ikastetxeak.....	42
8. Buruntzaldea-Goierriko eraginguneko ikastetxeak.....	44
II. eranskina. Ikastetxeko berrikuntza-arduradunari edo -arduradunei ordu-kreditua esleitzeko irizpideak	46
III. eranskina. Bea figurentzako formakuntza- eta laguntza-programa espezifiko: <i>BeAk Trebatzen</i>	47
IV. eranskina. Berrikuntzarako ordu-kreditua eta BeA figurak esleitzeko proposamena egiteko prozedura	51
V. eranskina. Ikastetxeetara bideratutako formakuntza-eskaintza	57
Lehen begirada. Ikastetxeetako profil profesional espezifikoari zuzendutako formakuntza	57



1. Zuzendaritza-eginkizuna betetzen hasteko prestakuntza-programa espezifikoa (aurrerantzean: ZEB_HPPE).....	57
2. Zuzendaritza-taldeentzako etengabeko formakuntza (zuzendarien mintegiak, ikasketa-buruen mintegiak, mentoretza, monografikoak,...)	58
3. BeAk Trebatzen programa (ikus III. eranskina)	60
4. Zientziaren didaktika kanpo-espazioan (mintegiak, ikastaroak eta materiala sortzea)	60
5. EA 2030 (mintegiak, Tokiko agenda)	60
6. EA 2030 (koordinatzaile berriei prestakuntza)	61
7. Erasmus+ ikastetxe hasi berrientzat.....	62
8. Erasmus+ ikastetxe arituentzat	63
9. Mugimendu Autonomia Haur Hezkuntzan(Alfileteroak)	64
10. Ulibarri programa : HN mintegia + EHB jardunaldia	66
11. Eskola Adimentsua: mintegia hasi berrientzat	66
12. Eskola Adimentsua; praktika-saioak, gaian hasita dauden ikastetxeentzat	67
13. STEAM mintegia	67
14. Bizikidetza eta hezkidetza mintegia.....	68
15. Ongizate eta babeserako koordinatzaile berrientzat online ikastaroa	69
16. Errestaurazio-praktikak ikastaroa: elkarriketa zirkuluak	69
17. Hezkidetza modulua I arduradun berrientzat.....	70
18. Hezkidetza modulua II	70
19. Irakasle aholkularientzako mintegia	71
20. Orientatzaileentzat mintegia	71
21. Orientatzaile eta irakasle-aholkulari berrientzako formazioa.....	72
21. PT irakasleentzat mintegia	73
22. Entzumen eta hizkuntza irakasleen (EHI) mintegia.....	73
23. Adimen Gaitasun Handien inguruko ikastaroa (irakasleak)	73
24. Adimen Gaitasun Handien inguruko ikastaroa (aholkulariak eta orientatzaileak)	73
25. HIPI irakasleak trebatzen	74
26. Early Start to English (Haur Hezkuntzan ingelesa irakasten laguntzeko mintegia)	75
27. EUSLE prestakuntza (hasierako ikastaroa + mintegia + jardunaldia)	75
Bigarren begirada. klaustro osoari edo klaustroko profesional-talde bati zuzendutako formakuntza	76
1. Matematikaren didaktika (etapa guztiak).....	76
2. Zientziaren didaktika: STEM funtsezko konpetentziaren alderdi zientifikoak	77



3. STEM funtsezko kompetentziaren alderdi zientifikoak (lehen hezkuntza)	78
4. STEM funtsezko kompetentziaren alderdi zientifikoak (bigarren hezkuntza).....	78
5. Programazio didaktikoak eta ikas-egoerak	79
6. Ebaluazio hezigarria.....	80
7. Kodozentzia	80
8. Teknika kooperatiboak	81
9. Irakurketa Estrategia ikastetxeetara (Euskal Hezkuntza Sistemarako Irakurketa Estrategia berria ezagutarazteko prestakuntza)	82
10. Ikasteko irakurri (arlotan, jakintzagai edo eremu guztietako testu akademikoaren irakurketa lantzeko prestakuntza)	82
11. Hizkuntzak arlo guztietan: trataera integrala	83
12. Hiru hizkuntzen trataera integratua	84
13. Hezkuntza Baliabide Irekiak HBI (ExElearning bitartez)	85
14. Teknopedagogia	85
15. Adimen artifiziala sentsibilizazioa.....	86
16. E-Twinning (ikastetxe hasi berrientzat)	86
17. E-Twinning (esperientziadun ikastetxeak).....	87
18. Office 365 hezkuntzan (zehazteke)	87
VI. ERANSKINA. Praktika-komunitateen eskaintza.....	88
HH mugimendu autonomia. (H)arituak.....	89
LH Proiektu globalizatuak: Diziplinartekotasunean murgiltzen	91
Amara Berri sarea.....	93
KH kudeaketa aurreratua sarea.....	94
Jakintzagaiak DBHko 1. eta 2. mailatan integratzeko praktika-komunitatea (aurrerantzean, EREMUA K LANTZEN komunitatea).	96
Eskola Txikiak sarea	100
Eraldatzen	103



Sarrera

Ikastetxeetan ikasleek trebetasunak eta konpetentziak garatzen dituzte, egungo eta etorkizuneko erronkei aurre egiten laguntzeko. Ikasleek kalitatezko hezkuntza jasoko dutela ziurtatzeko, funtsezkoa da horiek berrikuntzaren abangoardian egotea. Ildo horretan, horietako bakoitzaren errealitatetik abiatuta, ikastetxeak ikaskuntzaren berrikuntza sustatzen ari dira, beren Hezkuntza Proiektuarekin koherentzian, hezkuntza-komunitate bakoitzaren ezaugarriak kontuan hartuta. Beraz, ikastetxeetan inplementatutako berrikuntzak ikuspegi holistikotik eta testuinguruan kokatzen direla ziurtatzea da helburua, eta eragin esanguratsua eta positiboa izatea hezkuntzaren kalitatean eta ikasleen errendimendu akademikoan.

Azken bi urteetan, hezkuntzako ikastetxe publikoetan **Hezkuntzako Berrikuntza-arduradunaren figura** ezarri zenetik (aurrerantzean, **BeA figura**), ikusi da figura horiek funtsezko zeregina betetzen ari direla ikastetxeak ingurune dinamikoagoetara, inklusiboagoetara eta XXI. mendeko ikaskuntzara bideratutako inguruneetara aldatzeko. Haien lana berrikuntzako eta etengabeko hobekuntzako kultura sustatzea da, praktika pedagogiko berritzaileak, hezkuntza-teknologiaren erabilera eraginkorra eta irakasleen arteko lankidetzak bultzatuz.

Bi ikasturte hauetan ikaskuntza-prozesu esanguratsua egin da ikastetxeetan, beren praktikak eta estrategiak egokitu baitituzte hezkuntza-berrikuntzaren eskaerei eta erronkei erantzuteko.

Era berean, BeA figurek ikastetxeen barruan eta ikastetxeen artean **praktika-komunitate profesionalak** sortzen laguntzeko ahalmena dute, non esperientziak, ezagutzak eta baliabideak trukatzeko hezkuntza-komunitateko kide guztien garapen profesionalari laguntzen dioten. Horrela, ikastetxeek egungo eta etorkizuneko hezkuntza-ingurunearen aldatetara eta erronketara egokitzeko duten gaitasuna indartzen da eta ikasle guztientzako kalitatezko hezkuntza esanguratsua bermatu.

Lortutako aurrerapena aitortzeko unea da, **baita ikastetxeei autonomia handiagoa ematekoa ere berrikuntzarako orduen kudeaketan, zein BeA figuren izendapenean eta funtzionamenduan**. Metatutako esperientziak erakutsi duenez, ikastetxeek zeregin aktiboa dute hezkuntza-berrikuntzaren sustapenean, beren testuinguru eta behar espezifikoekin lerrokatuta.

Alde horretatik, nahitaezkoa da **BeA figurei beharrezko malgutasuna ematea beren formakuntza-ibilbidea modu pertsonalizatuan eta haien interesei eta garapen-arloei egokituta diseinatzeko**. Neurri horrek BeA figuren hazkunde profesionala bultzatzeaz gain, ikastetxeetan aldaketa- eta eraldaketa-prozesuak gidatzeko gaitasuna ere aberastuko du.

Beraz, jarraibide hauen **helburua BeA figuren funtzionamendurako esparru argia eta koherentea eskaintzea da**, eta 2024-2025 ikasturtean ikastetxe publikoen berrikuntzan eta hobekuntzan funtsezko eragile gisa duten garrantzia eta potentziala aitortzea.



Lehen. Ikastetxeetako berrikuntza-arduradunen (BeA figura) eginkizuna

Eginkizun nagusia da ikastetxeetan **ikaskuntza berritzeko prozesuak eta proiektuak sustatzea, dinamizatzea eta koordinatzea**, ikastetxearen Hezkuntza Proiektuarekin eta horren ondoriozko dokumentu estrategikoekin **bat etorritik**. Hori guztia, **zuzendaritza-taldearekin lankidetzan estuan eta modu koordinatuan egingo da**, ikastetxeko hezkuntzaren kalitatea hobetu dadin eta ikasleen aniztasunari ikuspuntu inklusibotik erantzun dakion, berrikuntzaren kultura sustatzearen eta hezkuntza-teknologiak eta -tresnak ezartzearen bidetik.

[↑Aurkibidea](#)

Bigarrena. Ikastetxeko berrikuntza-arduradunen (BeA figura) antolamendu- eta funtzionamendu-egitura

1. Zuzendaritza-taldeak BeA figuraren eginkizunak zehaztuko ditu, betiere ikastetxearen lehentasunen eta garatzen dituen proiektuen arabera eta jarraibide hauetan ezarritakoa kontuan hartuz.

2. Bi BeA figura dituzten Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan, hezkuntza berriztatze eta eraldatzeko batzorde bat sortu ahal izango da. Batzorde horretan, BeA horietako bat erreferentziazko figura izango da, eta zuzenean koordinatuko da jarraibide hauen [hamabigarren](#) atalean ezarritako ikastetxeko gobernu- eta koordinazio-organoekin. Erreferentziazko figura hori ikastetxeko Pedagogia Batzordeko kide izendatuko da.

3. Bi BeA edo gehiago dituzten Bigarren Hezkuntzako Ikastetxeetan eta Ikastetxe Publiko Integratuetan, hezkuntza berriztatze eta eraldatzeko departamentu ez-didaktiko bat sortu ahal izango da. Departamentu horretan, BeA horietako bat erreferentziazko figura izango da, eta zuzenean koordinatuko da jarraibide hauen [hamabigarren](#) atalean ezarritako ikastetxeko gobernu- eta koordinazio-organoekin. Erreferentziazko figura hori ikastetxeko Pedagogia Batzordeko kide izendatuko da.

4. BeA bakarra duten ikastetxeetan, pertsona hori ikastetxeko Pedagogia Batzordeko kide izendatuko da.

5. Bigarren hezkuntzako ikastetxeetan, BeA figuren ordutegia honako hau izango da:

- Lanaldi osoa eginkizun horietan ematen badute eta zuzeneko irakaskuntza-arduraldiko ordurik ez badute, **astean 30 ordu** egingo dituzte lan.
- Lanaldi osoa eginkizun horietan ematen ez badute, ordutegia honela antolatuko da: zuzeneko irakaskuntza-arduraldian murriztutako ordu bakoitzeko, ordu eta erdi eman beharko dute BeAko zereginetan. Horrela, **BeA figuren funtzioei eskainitako ordu bakoitzeko ordu erdiko igoera izango dute ikastetxean egiten duten ohiko ordutegiko asteko 23 orduak, asteko 30 orduko gehieneko mugarekin. Antzera egingo da berrikuntza-orduak dituzten irakasleen (BODI irakasleak) ordutegiarekin.**

[↑Aurkibidea](#)



Hirugarrena. BeA figuren konpetentzia-profila

1. BeA figuren konpetentzia-profilak honako trebetasun eta ezagutza hauek hartuko ditu barne, baita etengabeko formakuntza eta birziklatzeko konpromisoa ere, konpetentzia-profil hau garatzeko:

- a) **Pedagogia-ezagutzak:** pedagogiaren arloko formakuntza sendoa, hezkuntzari buruzko egungo joerei eta teoriei buruzko ezagutza, eta hezkuntzaren helburuei eta xedeei buruzko ikuspegi argia.
- b) **Lidergo-trebetasunak:** irakasle-taldeak koordinatzeko eta motibatzeneko lidergo-trebetasunak, eta sormena, lankidetzeta eta taldean lan egiteko gaitasuna sustatzeko ahalmena.
- c) **Sormena eta berrikuntza:** hezkuntzan berritzeko aukerak identifikatzeko gaitasuna, eta sormenezko irtenbideak, metodologia berriak eta ikastetxeko ikasleen ikaskuntza hobetzeko tresnak proposatzeko gaitasuna.
- d) **Hezkuntza-teknopedagogiako ezagutzak:** garapen bidean dauden hezkuntza-teknologiaren arloko ezagutza, ikasgelan eraginkortasunez erabiltzeko.
- e) **Komunikazio-trebetasunak.** Irakasle-taldearekin eta ikastetxeko gainerako kideekin komunikatzeko eta berrikuntzak eraginkortasunez ezartzen direla ziurtatzeko gaitasuna. Horretarako, gai izan behar du bere ideiak eta proposamenak ahoz zein idatziz eraginkortasunez eta adierazpenez komunikatzeko, eta gai izan behar du proposamenak argi eta konbentzimenduz moduan aurkezteko.
- f) **Hezkuntza-ebaluazioari buruzko ezagutza.** Ebaluazio-planak diseinatzeko gaitasuna. Horretarako, datuak eta informazioa aztertzeke gai izan behar du, ikastetxean ezarritako hezkuntza-berrikuntzen inpaktua neur dadin eta, beharrezkoa denean, egokitzapenak egin daitezkeen.
- g) Ikastetxearen **hezkuntza-testuingurua ezagutzea** eta Euskal Eskola Publikoaren ildo estrategikoen eta hezkuntza-arauen jakinaren gainean egotea.
- h) **Proiektuak kudeatzeko trebetasuna:** hezkuntza-berrikuntzako proiektuak planifikatzeko, gauzatzeko eta ebaluatzeko trebetasuna, eta lantaldeak eraginkortasunez koordinatzeko eta zuzentzeko gaitasuna.
- i) **Pentsamendu kritikoa:** hezkuntzaren arloko teknologia eta metodo berriak modu kritikoan ebaluatzeko eta ikastetxerako egokiak diren zehazteko gaitasuna.
- j) **Ongizate emozionala:** proiektuen inplementazioan ikasleen eta irakasleen ongizate emozionala sustatzeko konpetentzia.
- k) **Moldagarritasuna:** irakasteko, kudeatzeko eta antolatzeko modu berrietara egokitzeko eta aldatzeko gaitasuna.

2. Laburbilduz, hezkuntzako berrikuntza-arduradunak pertsona kualifikatua izan behar du, formakuntza pedagogiko sendoa izan behar du, baita, besteak beste, lidergo-trebetasuna, sormena, ezagutza teknologikoa eta komunikazio-trebetasuna ere. Konpetentzia-profil hori eduki behar du edo —formakuntza edo laguntza bidez—, epe laburrean profil hori garatzeko ahalmena.

[↑Aurkibidea](#)



Laugarrena. BeA figuren funtzioak.

1. BeA figurak honako **funtzio** komun hauek beteko ditu, **ikastetxearen ezaugarri eta behar espezifiko**en arabera horiek aldatu, hautatu eta/edo lehenetsi daitezkeen arren:

A Lidergo pedagogikoko funtzioa:

1. Ikastetxearen proiektuak ezagutzea, horien arteko harremanak ezarri eta izaera integrala izan dezaten.
2. Teknologia, tresna, joera eta korrante pedagogiko berriak ikertzea eta ebaluatzea, ikastetxean egokiak direnak ezartzeko.
3. Ikastetxearen hezkuntza-estrategia diseinatzeko laguntzea diagnostiko orokor batean oinarrituta, hezkuntza-prozesuaren alderdi guztietan berrikuntza integratuko duten ikuspegi holistikoak eta testuinguruan kokatutakoak sustatzeko.
4. Hobekuntza-arloak identifikatzea, bai irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuari dagokionez, bai hezkuntzaren teknologiar dagokionez.
5. Hezkuntza-ikerketan eta ebidentzietan oinarritutako praktiken ezarpena sustatzea, emaitza akademikoak eta ikasleen garapen integrala hobetzeko.
6. Ikastetxearen estrategiarekin bat datozen eta helburu argiak, ekintzak, kronogramak eta jarraipen- eta ebaluazio-mekanismoak barne hartzen dituzten berrikuntza-proiektuak garatzea, eraginkortasunez ezar daitezen.
7. Irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuaren hainbat arlotan erreferente diren edo talentua duten pertsonak identifikatzea.

B. Ikastetxeak dinamizatzeko funtzioa:

1. Klaustroaren artean lankidetzaren dinamika eraginkorak proposatzea eta gidatzea, hausnarketarako eta praktika berritzaileak trukatzeko espazio partekatuak sortzea barne.
2. Irakasle-taldeari aholkua eta laguntza ematea metodologia berritzaileak modu eraginkorrean ezartzeko, irakasleen arteko lankidetzaren sareak jostea eta hezkuntza-baliabideak elkarrekin sortzea sustatzea barne.
3. Ikastetxean berrikuntzako eta etengabeko hobekuntzako kultura bultzatzea, berrikuntza- eta garapen-proiektuetan hezkuntza-komunitateko kide guztien parte-hartze aktiboa sustatuz.
4. Curriculumetik eskolaz kanpoko jarduerak eta diziplinariako proiektuak antolatzea, ikasleen ikaskuntza aberastea eta hezkuntza-komunitatearen parte-hartzea sustatzeko.
5. Ikastetxearen errealitatea sakon ezagutzeko egokitutako edo beharrezkotzat jotzen diren koordinazio-organoetan parte hartzea.
6. Ikastetxe barruko komunikazioa hobetzeko mekanismoak bilatzea.
7. Teknologia, material eta baliabide digitalen erabilera bultzatzea, ikasgelako irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuaren aldaketa metodologikoa errazteko.

**C. Formakuntza-funtzioa:**

1. Ikastetxeko hezkuntza-etapa bakoitzaren nortasuna eta ezaugarriak ezagutzea.
2. Irakasle-taldeari formakuntza eta gaikuntza ematea hezkuntza-teknologiak eraginkortasunez erabiltzeko eta ikuspegi pedagogiko berritzaileak integratzeko.
3. Kalitatezko hezkuntza-baliabideak eta -materialak ematea, tresna digitalak erabiltzeko gidak eta tutorialak sortzea eta praktika berritzaileak ezartzea barne.
4. Berdinen arteko formakuntzarako espazioak eta uneak antolatzea, ikastetxeko irakasleen artean esperientziak trukatzeko eta lankidetzan ikastea sustatuz.
5. Etengabeko garapen profesionaleko programak diseinatzea, irakasleen behar espezifikoak heltzeko eta haien hazkunde profesionala sustatzeko hezkuntza berritzatzeko funtsezko arloetan.

D. Material didaktikoak sortzeko eta erabiltzeko prozesua koordinatzeko eta dinamizatzeko funtzioa.

1. Beharren ebaluazioa. Arloak eta gaiak identifikatzea material didaktikoa garatzeko, ikastetxearen eskaeren eta egungo hezkuntza-curriculumaren arabera, klaustroaren, ikasleen eta hezkuntzako profesionalen feedbacka bilduz.
2. Baliabideak eta tresnak. Tresna digitalak eta online baliabide garrantzitsuak ikertzea eta hautatzea, ikastetxe bakoitzari egokitutako erabilerari buruzko formakuntza emanez.
3. Formakuntza eta laguntza. Formakuntza-saioak antolatzea eta laguntza indibidualizatua ematea irakasleak material didaktikoak sortzen eta erabiltzen gaitzeko, zalantza teknikoak eta pedagogikoak argituz.
4. Ereduak eta adibideak. Kalitate handiko eta hezkuntza-helburuekin lerrokatutako adibideak sortzea, ikasle-talde desberdinentzako irisgarritasuna eta moldagarritasuna sustatzeko.
5. Banaketa eta partekatzea. Material didaktikoetara sartzeko eta material didaktikoak partekatzeko plataforma digitalak ezartzea, irakasleen arteko lankidetzak eta trukea sustatuz.
6. Praktika-komunitateak eta lankidetzak-proiektuak. Baliabideak eta esperientziak partekatzeko, ikastetxeen arteko lankidetzak eta praktika-komunitateak sortzen laguntzea eta material didaktikoa sortzeko lankidetzak-proiektuak sustatzea.
7. Etengabeko Ebaluazioa eta Hobekuntza. Material didaktikoaren eraginkortasuna ebaluatzea, emaitzen arabera doikuntzak egitea eta baliabideak eguneratuta mantentzea, hezkuntzako joera berrien ildotik.

E. Hizkuntza-berrikuntzako funtzioa:

1. Hizkuntzen irakaskuntza integratuz oinarritutako ikuspegi metodologikoak bultzatzea arlo, ikasgai edo curriculum-esparruetan, euskara ardatz nagusitzat hartuta.
2. Ikastetxearen Hizkuntza-Proiektua egiten eta haren jarraipena egiten laguntzea, Hezkuntza Proiektuarekiko koherentzia bermatuta eta ikasleen eta haien ingurunearen errealitate soziolinguistikoa aintzat hartuta.



3. Ikasle guztien komunikazio- eta hizkuntza-kompetentzia kulturartekotasunetik eta ikuspegi eleaniztunetik garatzea, euskararen erabileran sakonduz.
4. Ikastetxeko an jardueretan eta kanpo-proiektziokoetan euskara adierazpen-tresna gisa erabiltzen dela bermatzeko neurriak bultzatzea.
5. Ikasle etorri berriei harrera eta arreta linguistikoa emateko fromakuntza-programa integralak garatzen laguntzea.
6. Hizkuntzen esparruan, irakasleak hizkuntza- eta metodologia-kompetentzietan prestatzeko eta hobetzeko plana egiten eta gauzatzen laguntzea.
7. Euskal kultura eta berezko ondare artistikoa bultzatzeko ekintzak sustatzea.
8. Ikasleen irakurmena hobetzeko estrategiak sustatzea eta ezartzea. Irakurketa sustatzeko programak diseinatzea eta arlo horretan egindako aurrerapenak ebaluatzea. Irakurketa kompetentzian oinarritutako hezkuntza-estrategiarekin lankidetzan aritzea.

F. Ikastetxeak dinamizatzeko funtzioa:

1. Sareko proiektuetan parte hartzea estatuko eta nazioarteko beste ikastetxeekin eta antzeko figurekin, praktika berritzaileak partekatuz eta ikaskuntza-komunitateak garatzen lagunduz.
 2. Beste ikastetxe batzuetako BeA figurekin koordinatzea, estrategia komunak ezartzeko eta eskualdeko edo ikastetxeen arteko proiektuak ezartzen laguntzeko.
 3. Hezkuntza Sailarekin lankidetzan aritzea hezkuntza-berrikuntzarekin lotutako aholkularitza-, jarraipen-, ebaluazio- eta kudeaketa-lanetan, ikastetxean bertan, bai eta parte hartzen duen praktiketako sare eta komunitateetan ere, eskola-eremutik ikuspegiak eta esperientziak ekarriz.
 4. Ikasleek erabakiak hartzen eta beren hezkuntza-prozesua elkarrekin eraikitzen parte har dezaten sustatzea, autonomia eta erantzukizuna bultzatuz eta hezkuntza-komunitateko kide direla sentiaraziz.
 5. Ikastetxeko praktika berritzaileak behatzea, erregistratzea, monitorizatzea eta koordinatzea, eta Euskal Eskola Publikoko gainerako ikastetxeekin partekatzea.
 6. Antzeko berrikuntza-proiektuak garatzen dituzten ikastetxe publikoekiko praktika-komunitateen prestakuntzan laguntzea.
 7. Ikastetxearen inguruan lidergo pedagogikoa erakutsi duten pertsonak aurkitzea, berrikuntza- eta aldaketa-prozesuak bultzatzeko.
 8. Hezkuntza-ibilbide bereko ikastetxeetako BeA figurekin koordinatzea, etapa batetik bestera igarotzea erraztuko duen estrategia komuna garatzen laguntzeko.
2. 2024-2025 ikasturterako BeA figuren **funtzioek ikuspegi osoago bateranzko bilakaera erakusten dute**. Ikuspegi horren barruan sartzen dira kalitate handiko material didaktikoa sortzea eta gainbegiratzea, lankidetzan eta lidergo pedagogikoa sustatzea, hizkuntza-kompetentzia eleaniztuna indartzea euskara ardatz hartuta, eta ikastetxe barruko eta ikastetxe arteko ezagutzak eta jardunbide egokiak trukatzeko sareak sendotzea.



3. Funtsezkoa da adieraztea, 2024-2025 ikasturtean, **ez dela beharrezkoa BeA figurak funtzio horiek guztiak aldi berean betetzea**. Ikastetxeko **zuzendaritzak**, BeA figurarekin lankidetzan, ikastetxearen behar espezifikoetarako egokienak eta lehentasunezkoenak diren funtzioak hautatuko ditu.

4. Ikastetxeko **zuzendaritzak** 2024-2025 ikasturterako funtzioak zehazten dituenean, **erabaki ahal izango du BeA figurei zer funtzio esleituko dizkien eta, hala badagokio, zer eginkizun utziko dituen beste irakasle batzuen esku**. Hala balitz, **berrikuntzako ordu-kredituaren zati bat irakasle horiei esleitu ahal izango lieke** (aurrerantz, **BODI irakasleak**: berrikuntza-orduak dituen irakaslea).

5. **BeA figurak edo figurek ardura izango dute BODI irakasleek bere gain hartu dituzten zereginak koordinatzeko**. Gainera, BeA figurek ikastetxeko gobernu- eta koordinazio-organoekin koordinatuta beteko dituzte beren erantzukizunak.

[↑Aurkibidea](#)

Bosgarrena. BeA figuraren atribuzioak

1. Aurreko atalean ezarritako funtzioak betetze aldera, BeA figurek honako atribuzio hauek izango dituzte:

- Ikastetxean bere funtzioekin zerikusia duten jarduerak ezagutzea, bertan inplementatzen ari diren berrikuntza-proiektuak monitorizatzeko eta horien jarraipena egin ahal izateko.
- Ikastetxean garatutako berrikuntza-proiektuen garapena eta hobekuntza egiaztatzea, ebaluazio-tresna egokien bidez.
- Ikastetxearen Formakuntza-Planaren jarraipena egitea.
- Ikastetxeko gobernu- eta koordinazio-organoen bileretan parte hartzea, jarraibide hauen [hamabigarren](#) atalean ezarritakoaren arabera.
- Hezkuntza Sailak BeA figuren zat eskainitako formakuntza-saioetan parte hartzea.
- Euskal Eskola Publikoaren hezkuntza-berrikuntzan hobetzen laguntzea, ikastetxeko esperientziatik eta parte hartzen duen saretik eta praktika komunitatetik abiatuta.
- Bere funtzioen barruan, ikastetxeko zuzendaritzak esleitzen dion beste edozein atribuzio.

[↑Aurkibidea](#)

Seigarrena. 2024-2025 ikasturterako zereginak

1. BeA figurek funtsezko zeregina izaten jarraituko dute **curriculum berriak hezkuntza-etapa guztietan etengabe ezartzeko eta egokitze**, eta modu koherentean integratuko dituzte ikastetxe bakoitzaren Hezkuntza Proiektuan. Hala ere, egokitzapen horiek antolatze eta planifikatzeko orduan ikastetxeek autonomia handiagoa izatea sustatuko da, ikasleen berariazko beharretara eta hezkuntza-testuingurura egokitu daitezen.

2. Autonomia horren esparruan, **BeA figuren zereginak zuzendaritza-taldeari eta irakasle-klaustroari laguntza, aholkularitza eta gaikuntza ematean oinarrituko dira**, curriculum berriaren inplementazio eraginkorra errazteko. Besteak beste:



- a) **Curriculumaren antolaketa malgua.** Zuzendaritza-taldearekin elkarlanean aritzea arloak edo ikasgaiak malgutasunez antolatzeko, proiektu globalizatuen eta eremuen bidez, besteak beste. Arreta berezia eskainiko zaio plangintzari, eta, hala badagokio, lana eremuka ezartzeari, bereziki Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen bi mailetan.
- b) **Programazio didaktikoak eguneratzea eta ebaluatzea.** Ikasketa-burutzari beharrezko plangintzan eta prestakuntzan laguntzea programazio didaktikoak eguneratzen, inplementatzen eta ebaluatzen jarraitzeko, bai eta ikaskuntza-egoeretan, erronken arabera lanetan eta proiektu globalizatueta ere.
- c) **Curriculum-erabakien jarraipena eta kudeaketa.** Hartutako curriculum-erabakiak modu eraginkorrean inplementatzen direla ziurtatzea, ikastetxeko Hezkuntza Proiektuan dokumentatuz eta erabaki horien gauzatzea, jarraipena, ebaluazioa eta hobekuntza dagokion ikastetxeko organoekin koordinatuz. Gainera, curriculum-erabaki berriak hartzea errazten jarraitzea, hezkuntza-prozesuaren etengabeko azterketa-, egokitzapen- eta hobekuntza-ziklo bat sustatuz, ikasleen eta hezkuntza-ingurunearen premia aldakorretara egokitzeko.
- d) **Material didaktikoak sortzea eta gainbegiratzea.** Kalitatezko material didaktikoak ikertzea, hautatzea eta garatzea, ikastetxeko hezkuntza-helburuekin lerrotatuta eta ikasleen premia espezifikoetara egokituta. Horren barruan sartuko da hezkuntza-tresna berritzaileak erabiltzeko baliabide digitalak, gidak eta tutorialak sortzea eta/edo hautatzea.
- e) **Hizkuntza Komunikaziorako Konpetentzia eta Konpetentzia eleaniztuna sustatzea.** Ikastetxeko Hizkuntza-Proiektua eta haren jarraipena egiten laguntzea, Hezkuntza Proiektuarekiko eta ikasleen errealitate soziolinguistikoarekiko koherentzia bermatuz, euskararen erabilerari garrantzi berezia emanez. Arlo eta jakintzagai guztietan hizkuntzen trataera integratuan eta integralean oinarritutako metodologiak inplementatzen bultzatzea, testuinguru eleaniztuna eta kulturartekoa aintzat hartuta.
- f) **Irakurketa Estrategia garatzea.** Argitaratu berri den [Euskal Hezkuntza Sistemarako Irakurketa Estrategia](#) ikastetxean ezartzen laguntzea, bere baitan hartuko dituen arlo eta jakintzagai guztietako testuetan ikasleen ulermen gaitasuna hobetzeko proposamenak, eta irakurtzeko ohitura eta irakurzaletasuna sustatzeko proposamenak. Lortutako emaitzak ebaluatzea eta etengabe hobetzeko neurriak proposatzea.

3. *DigCompEdu Gelan* programaren barruan egindako lana kontuan hartuta, BeA figurek zeregin aktiboa izaten jarraituko dute **ikastetxeen eraldaketa digitalean**, eta teknologia modu eraginkorrean ikaskuntza-prozesuan integratzen duten praktika pedagogiko berritzaileak sustatuko dituzte. Ekintza hauek izango dituzte ardatz:

- a) **Ikastetxeko Digitalizazio Batzordean aktiboki parte** hartzea, ikastetxeko Proiektu Digitalaren inplementazioa koordinatuz eta hezkuntza-behar eta -helburuekin bat datorrela ziurtatuz.
- b) **Eskola Adimentsua programa bultzatu eta gauzatzen laguntzea.** Eskola Adimentsua Hezkuntza Sailak sustatzen duen programa da, **pentsamendu konputazionalaren, programazioaren eta robotikaren arloen garapena artikulatzeko**, curriculumean txertatzeko helburuarekin. Curriculum-dekretuek **pentsamendu konputazionala, programazioa eta robotika txertatzen dituzte** unibertsitateaz kanpoko hezkuntza-maila guztietan, eremu zabalagoko hainbat irakasgairen zati



gisa. Horrela, 2023-2024 ikasturtetik aurrera derrigorrezko irakaskuntzetako maila guztietan sartzea ezarri zen. Pentsamendu konputazionala, programazio-hizkuntzak eta hezkuntza-robotika hezkuntza-curriculumetan elementu berritzaile gisa integratzeko, baliabide didaktikoak eta prestakuntzakoak erabili behar dira, eta, bereziki, irakasleei laguntza egokia eman behar zaie, irakaskuntza- eta ikaskuntza-jarduerak modu esanguratsuan eta eraginkorrean sar daitezen, ikasleei bizitzarako beharrezkoak diren konopententzia digitalak garatzen laguntzeko. Programa horren garapenarekin batera, beharrezko jarraibideak, prestakuntza, aholkularitza eta ekipamendua emango dira, Hezkuntzako sailburuordearen 2024-2025 ikasturte-hasierako ebazpenean zehaztutakoaren arabera.

- c) Ikastetxearen hezkuntza-estrategiarekin lerrokatuta dauden **berrikuntza digitaleko proiektuak koordinatzea**, eta helburu argiak, ekintza espezifikoak eta ebaluazio-mekanismoak ezartzea, horiek hezkuntza-prozesuan eraginkortasunez ezarriko direla eta eragina izango dutela bermatzeko.

4. Jarraibide hauetako [lehenengo atalean](#) aipatzen den BeA figuren eginkizuna kontuan hartuta, figura horiei beste zeregin hauek ere esleituko zaizkie:

- a) **Ikastetxearen Formakuntza Plana** diseinatzea, koordinatzea eta haren jarraipena egitea, zuzendaritza-taldeak gainbegiratuta. Plan horretan, **berrikuntza-proiektuak** eta haien **gaikuntza-programak** barne hartuko dira, elkarren arteko erlazioak ezar daitezen eta izaera integrala izan dezaten.
- b) Ikastetxearen estrategiarekin bat datozen eta helburu argiak, ekintzak, kronogramak eta jarraipen- eta ebaluazio-mekanismoak barne hartzen dituzten **berrikuntza-proiektuak koordinatzea**, eraginkortasunez inplementa daitezen.
- c) Ikastetxeak garatzen dituen **berrikuntza proiektuei lotutako praktika-komunitateetan parte hartzea**, zuzendaritza-taldeak erabakitzen duen kasuetan.
- d) Zuzendaritza-taldearekin lankidetzan aritzea. **Ikastetxearen diagnostikoan**, kanpo-ebaluazioetako datuetatik (ebaluazio diagnostikoak, USE proba...) eta barne-ebaluazioetako datuetatik abiatuta; **hobekuntza-arloen identifikazioan**, bai irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuei dagokienez, bai hezkuntzaren teknologiarri dagokionez; eta horren ondoriozko **hobekuntza proposamenen diseinuan, inplementazioan, jarraipenean eta ebaluazioan**.

5. Ikastetxeko zuzendaritzak, BeA figura edo figurekin batera, 2024-2025 ikasturterako zereginak planifikatuko ditu, ikastetxearen erronkei eta premiei eta 2023-2024 ikasturtean egindako zereginen garapen-mailari erreparatuta.

6. Ikastetxeko zuzendaritzak, funtzioei buruzko [laugarren atalean](#) jaso den bezala, **zeregin horiek aldatu, hautatu edota lehenetsi ahal izango ditu**, ikastetxearen ezaugarri eta premia espezifikoaren arabera. Era berean, ikastetxeko **zuzendaritzak aukeratu ahal izango du zer zeregin esleituko dizkion BeA figurari edo figurei, eta zeintzuk, egoki baderitzo, utziko dituen beste irakasle batzuen esku**. Kasu horretan, berrikuntzako ordu-kredituaren zati bat beste irakasle horiei esleitu ahal izango die (BODI irakasleak).



7. BeA figurak edo figurek ardura izango dute BODI irakasleek bere gain hartu dituzten zereginak koordinatzeko. Era berean, BeA figurek ikastetxeko gobernu- eta koordinazio-organoekin koordinatuta beteko dituzte beren eginkizunak.

[↑Aurkibidea](#)

Zazpigarrena. BeA figurei ordu kreditua esleitzeko irizpideak

1. Hezkuntza Sailak jarraibide hauen [I. eranskinean](#) ezarritako irizpideen arabera esleituiko dizkio ikastetxe bakoitzari ordu-kredituak.

2. Zuzendariak —hala badagokio, 2024-2025 ikasturterako ikastetxeko zuzendari izendatuko den pertsonaren oniritziarekin— bere ikastetxean berrikuntza-arduradun izango den edo diren pertsonak izendatzeko proposamena egingo du.

3. Proposamen horrek honako baldintza hauek bete beharko ditu:

- a) Dagokion ikastetxea behin betiko edo behin-behineko destinoa duen karrerako funtzionarioa izatea (praktikaldian daudenak barne).
- b) Gutxienez, 2023-2024 ikasturtean ikastetxeko klastroaren parte izan eta jardunean dagoen irakaslea izatea.
- c) Ikastetxeko zuzendaria ezin da BeA figura izan.
- d) Ordu-liberazioa dakarten formazikuntzetan parte hartzen duten irakasleak, hala nola, IRALE programan, ezingo dira BeA izendatu.
- e) Irakaskuntzako konpetentzia digitalean B1 akreditazioa izatea.

Proposatutako pertsona 2023-2024 ikasturtean ikastetxeko BeA figura izan izana lehenetsiko da, betiere aurretik ezarritako baldintzak betetzen badituzte eta ikastetxeko zuzendariaren oniritzia badu.

BeA figura izateko proposatutako pertsonak ez badu irakaskuntzako konpetentzia digitalean B1 akreditaziorik, hura lortzeko beharrezko prestakuntza egiteko konpromisoa hartuko du. Alde horretatik, Berritzegune Nagusiak beharrezko formakuntza eta laguntza eskainiko dio 2024-2025 ikasturteko lehen hiru hilabeteetan prestakuntza hori egin dezan.

4. Aurreko ataletan ezarritako baldintzak betetzen dituzten irakasleen artean ordu-kredituak esleituiko dira jarraibide hauetako [II. eranskinean](#) ezarritakoaren arabera.

5. Prozedura telematikoa gaituko da, zuzendariak proposamen hori egin dezan —hala badagokio, 2024-2025 ikasturterako zuzendari izendatuko den pertsonaren oniritziarekin—.

6. Proposamen guztiak baliozkotu beharko ditu ondorio horretarako ezarritako batzordeak.

7. Proposamenak ez baditu aurretik ezarritako baldintzak betetzen, zuzendariak eskaeran arrazoitu beharko ditu proposamen hori egitera eraman duten aparteko inguruabarrak. Baliozkotze-batzordeak bidezko informazio osagarria eskatu ahal izango dio ikastetxeko zuzendaritzari aparteko inguruabar horiek baloratu ahal izan ditzan. Horren arabera onetsi edo ezetsiko du proposamena.



8. Batzordeak dagokion ikastetxeko zuzendaritzari jakinaraziko dizkio bere baliozkotzeak. Baliozkotzea aldekoa izanez gero, zuzendariak izendatuko ditu berrikuntza-arduraduna edo arduradunak.

9. Zuzendariak ez badu proposamena egiten edo baliozkotze-batzordeak ez badu egindako proposamena egokitzen jotzen, dagokion lurralde historikoko Hezkuntzako ordezkariak pertsonarik egokiena edo, hala badagokio, egokienak izendatuko ditu, hezkuntzako ikuskaritzaren txostenaren ondoren.

10. Kontuan hartuta BeA figurak edo figurek, bai eta BODI irakasleek ere, beren eginkizunak behar bezalako kalitatearekin bete ahal izateko, ezinbestekoa dela pertsona horiek ikastetxea ezagutzea eta bertan lidergoa izatea, **irizpide orokor gisa**, ezin izango zaizkie eginkizun horiek IKHAn sartzen diren irakasleei eskuordetu. Beraz, gomendatzen da, **ahal den neurrian**, BeA figurari buruzko edota berrikuntza-orduei buruzko oharrak dituen plazarik ez ateratzea IKHAn.

[↑Aurkibidea](#)

Zortzigarrena. BeA figuren formakuntza eta akonpainamendua: *BeAk Trebatzen* programa

1. Hezkuntza berrikuntzaren figurak 2022-2023 ikasturtean sortu zirenez, garrantzitsua da Euskal Eskola Publikoan hazten ari diren figura horiei formakuntza eta laguntza egokia ematen jarraitzea. Xede horrekin, ezarri zen **BeAk Trebatzen berariazko formakuntza- eta laguntza-programa**, helburu argi batzuekin:

- a) BeA figuren formakuntzarako eta laguntzarako funtsezko tresna izatea.
- b) BeA figurek beren funtzioak eraginkortasunez betetzeko beharrezkoak diren gaitasunak, ezagutzak eta tresnak eskura ditzaten ahalbidetzea.
- c) BeA figurei laguntzea beren funtzioak eta zereginak arrakastaz betetzeko funtsezkoak diren prozesuak eta tresnak ulertzen.
- d) Esperientziak trukatzeko denborak eta espazioak erraztea, eta harreman formalak eta informalak sustatzea, praktika-sareak eta -komunitateak sortzeko.
- e) Ikuspegi integrala ematea, BeA figurek ikastetxeetan proiektu berritzaileak diseinatu eta inplementatu ahal izan ditzaten.
- f) BeA figurek funtsezko trebetasunak gara ditzaten ahalbidetzea, hala nola lidergoa, talde-lana eta arazoak kudeatzea.

2. Ziklo berri honetan, *BeAk Trebatzen* programak jatorrizko ikuspegiaren funtsari eutsiko dio, 1. puntuan adierazitako helburuak gordez; horrekin batera, **honako hobekuntza hauek** gaineratu dira programaren antolaketan:

a. Ikaskuntza pertsonalizatzea

Programari egindako aldaketei esker, BeA figurek beren interesetara, beharretara eta garapen-eremuetara egokitutako formakuntza-ibilbideak diseinatu ahal izango dituzte. Horren barruan sartzen da formakuntza -jardueren artean hautatzeko aukera, haien testuinguru espezifikorako garrantzitsuak diren jarduera praktikoetan parte hartzekoa eta berariazko konpetentziak garatzeko tutoretza pertsonalizatuak jasotzekoa.



Alde horretatik, *BeAk Trebatzen* programak BeA figurentzat derrigorrezko formakuntza-jarduera batzuk izango ditu, aukerako formakuntza-jarduera esakintza zabal batekin batera. Eskaintza horietatik, BeA bakoitzak bere garapen pertsonal eta profesionalerako egokienak aukeratu ahal izango ditu, **beti ere ikastetxearen beharrekin bat etorrira.**

b. Eskarmentu handiko BeAk eta BeA berriak

2024-2025 ikasturtean, azken urteetan esperientzia eta formakuntza metatu duten BeA figura ugari izatea espero da. Egoera horrek programaren diseinuan egokitzapen espezifikoak egiteko beharra eragiten du, programa egungo testuinguruan ere garrantzitsua eta eraginkorra izan dadin. Hona hemen proposatutako egokitzapenetako batzuk:

i. Hasierako formakuntza eta harrera-plana.

Hasierako formakuntza trinko bat ezarriko da BeA berrientzat, beren rolaren funtsezko alderdiak eta eginkizun hori eraginkortasunez betetzeko behar diren oinarritzko tresnak ardatz hartuta.

Gainera, harrera-plan bat diseinatuko da, bere eginkizunak garatzeko lehen hilabeteetan orientazio eta laguntza pertsonalizatua emateko.

Era berean, esperientziadun BeA figurentzako hasierako formakuntza bat egingo da, BeA hasiberrien formakuntzaren zati batekin bat etorriko dena. Formakuntzaren zati horren helburua 2023-2024 ikasturteko *Murgiltze Astea*n landu gabeko alderdiak osatzea izango da.

ii. Trukea eskarmentudun BeA figurekin.

Programako jardueren zati bat aldizkako topaketak eta lankidetzaz-jarduerak izango dira, BeA berriek esperientzia, kezka eta ikaskuntza esperientzia gehien duten BeA figurekin partekatu ahal izateko.

Trukerako une horiek aldizkako mintegien bidez gauzatuko dira, elkarrekin eta elkarrengandik ikasteko eta hezkuntza-komunitatearen barruan sare profesionalak eraikitze gune gisa ulertuta.

Egokitzapen horien bidez, **hasierako eta etengabeko formakuntza sendoa bermatu nahi da**, hala nola, **BeA figura berrientzako harrera-prozesu eraginkorra** eta **BeA figura esperientziatuekin lankidetzan ikasteko eta garapen profesionalerako etengabeko aukerak ahalbidetzea.**

c) Formakuntza-jardueretako parte-hartzaileak hautatzeko autonomia.

Ikastetxeei eskaintzen zaien autonomía formakuntza-jardueretan parte hartzera ere hedatzen da. Nahiz eta BeA figurak izan formakuntza- eta laguntza-prozesu horren hartzaile nagusia, ikastetxeek autonomia izango dute erabakitze nor den irakaslerik egokiena formakuntza jakin batzuetara joateko; hau da, ikastetxeek erabakiko dute BeA figurak hartu behar duen parte ala beste irakasle batek (adibidez BODI irakasleak). Maltagutasun horren oinarria da ulertzea hezkuntza-berrikuntza prozesu kolektibo bat dela, eta ikastetxeko hainbat profil profesionalen parte-hartzeaz eta lankidetzaz baliatu daitekeela.



3. BeA figuren eta beste irakasle batzuen (adibidez, BODI irakasleak) formakuntzak eragin nabarmena izan behar du haien ikastetxean. Horretarako, **BeAk Trebatzen** programaren formakuntza-paradigma honako zutabe hauetan oinarritzen da:

a) **Kaskada formakuntza.** Formakuntza planteamendu eraginkorra da BeA figurek edo, hala badagokio, BODI irakasleek, formakuntza-programen bidez ezagutza, konpetentzia eta trebetasun berriak eskuratzean, esperientzia hori ikastetxean dituzten lankideei transmititu eta haiekin partekatu ahal izatea eskatzen du. Ezagutza transferitzeko prozesu horrek bermatzen du berrikuntzak eta jardunbide egokiak modu organikoan zabaltzea eta ikastetxe osoko hezkuntza-kulturan txertatzea.

b) **Formakuntza-Ekintza-Gogoeta.** Formakuntza-ziklo honek ezagutza teorikoak eskuratzeaz gain, praktikan jartzea eskatzen du, ikasgelako eta ikastetxeko testuinguru errealean. Ekintzaren eta estrategia edo ikuspegi pedagogiko berrien inplementazioaren bidez, BeA figurek, edo, hala badagokio, BODI irakasleek, lortutako emaitzei buruz hausnar dezakete, hobekuntza-arloak identifikatu eta beren praktikak etengabe doitu. Praktikari buruzko gogoeta aktibo hori funtsezkoa da lanbide-ikaskuntzarako eta hezkuntza-kalitatea etengabe hobetzeko.

c) **Eragina antolaketa-kulturan.** BeA figuren eta beste irakasle batzuen prestakuntzak eragin zuzena du ikastetxearen antolaketa-kulturan. Etengabeko ikaskuntzako, lankidetzako eta berrikuntzako kultura sustatzean, hezkuntza-talde osoaren garapen profesionalerako baldintza egokiak sortzen dira. Horrek dakar lan-giroa dinamikoagoa eta motibagarriagoa izatea, eta ikasleen zein profesionalen ikaskuntzan eta hazkundean ardaztua egotea.

d) **Emaitza akademikoak hobetzea.** BeA figuren eta beste irakasle batzuen formakuntzaren ondorioz, ikasgelan estrategia berritzaile eta eraginkorrak ezartzeak eragin zuzena du emaitza akademikoetan eta ikaslearen errendimenduan. Metodologia aktiboak erabiltzeak, diziplinarteko proiektuak diseinatzeak eta hezkuntzako tresna teknologikoak erabiltzeak, besteak beste, ikaskuntza esanguratsuagoa lortzen eta ikasleek funtsezko konpetentziak eskuratzen laguntzen dute.

e) **BeA figuren erantzukizuna formakuntzaren eraginaren jarraipenean eta ebaluazioan.** BeA figuren funtsezko erantzukizunetako bat da prestakuntzetan ikasitakoaren inplementazioaren jarraipena egitea eta ikastetxeetan duen eraginaren ebaluazioa egitea. Erantzukizun horren oinarria da ziurtatzea prestakuntzetan eskuratutako ezagutzak eta trebetasunak ekintza zehatzetan gauzatzen direla, eta ekintza horiek bide izatea hezkuntza-jarduna etengabe hobetzeko eta hezkuntzaren berrikuntzako eta kalitateko helburuak lortzeko.

Laburbilduz, BeA figuren eta beste irakasle batzuen formakuntza (BODI irakasleak) ez da bakarrik garrantzitsua banakako garapen profesionalagatik, ezpada eragin sistemikoa duelako ikastetxean: ikaskuntzako, berrikuntzako eta etengabeko hobekuntzako kultura sustatzeak emaitza akademiko hobeetan eta ikasleen hezkuntza-esperientzian du isla.

4. **BeAk Trebatzen** programaren ebaluazioa

BeAk Trebatzen programa bi urtez garatu ondoren, programaren eraginaren ebaluazioa egiteko beharra ikusten da, bai ikastetxean, bai euskal hezkuntza-sistema publikoan.



BeAk Trebatzen programak ikastetxeetan eta euskal hezkuntza-sistema publikoan duen eraginaren **adierazleak** askotarikoak eta erabakigarriak dira programaren eraginkortasuna eta onurak ebaluatzeko. Adierazle horien artean daude:

- a) Hezkuntza berrikuntzaren estrategien ezarpena hobetzea, irakaskuntzaren eta ikaskuntzaren kalitatean islatuko litzatekeena.
- b) Irakasleen eta BeA figuren arteko lankidetzaren areagotzea eta proiektu berritzaileak sortzea espero da. Horrek ikaskuntza profesionaleko sareak indartuko lituzke, eta jardunbide egokiak trukatzeko eta ezagutza kolektiboa eraikitzea sustatuko luke.
- c) Irakasleek etengabeko hobekuntzarekiko eta hezkuntza-berrikuntzarekiko duten motibazioa eta konpromisoa areagotzea.
- d) Ikasleen emaitza akademikoak eta funtsezko konpetentziak hobetzea, metodologia eta baliabide didaktiko berriak eraginkortasunez ezartzearen ondorioz.

Adierazle horiek ebidentzia sendoekin babestu behar dira, hala nola kasuen azterketekin, proiektu pilotuen emaitzen analisiekin eta hezkuntzako adituek egindako kanpo-ebaluazioekin. Eraginaren ebaluazioak aukera emango du hobetu beharreko arloak identifikatzeko, estrategiak doitzeko eta *BeAk Trebatzen* programak bere helburuak modu eraginkorrean betetzen dituela ziurtatzeko, banakako ikastetxeei zein euskal hezkuntza-sistema publikoari, oro har, mesede eginez.

BeAk Trebatzen programaren etengabeko berrikuspen eta egokitzapenak programaren garrantzia eta eraginkortasuna bermatuko du denboran zehar, ikastetxeen eta hezkuntza-sistemaren behar aldakorrei erantzunez.

5. Jarraibide hauetako [III. eranskinean](#) zehazten dira *BeAk Trebatzen* programa espezifikoaren ezaugarriak. Ikasturtearen hasierako Ebazpenean xehetasun handiagoz zehaztuko dira programa horren kronograma eta edukia, eta ikastetxeak horiek kontuan hartu beharko ditu bere plangintzan. Salbuespen gisa deitu ahal izango du Hezkuntza Sailak BeA formakuntza-saiotara edo bileretara aurreikusitako egutegitik kanpo. Ikastetxeko zuzendaritzak BeA formakuntza edo bilera horietara bertaratuko dela bermatzeko mekanismoak eduki beharko ditu.

[↑Aurkibidea](#)

Bederatzigarrena. Ikastetxearen Formakuntza-Plana

1. Ikastetxearen Formakuntza Plana etengabeko hobekuntza bultzatzeko helburuarekin diseinatu behar da, lankidetzaren prozesu baten bidez, hezkuntza-jarduera aztertze eta ulertze. Beraz, indarguneak eta ahulguneak identifikatu behar dire, hobekuntzak proposatu eta formakuntza-helburuak Hezkuntza Proiektuaren misioarekin eta balioekin lotzeko.

2. Formakuntza-plana zehazteko, ikastetxeko Hezkuntza Proiektuarekiko koherentzia bermatu behar da; formakuntza-helburuak ikasleen eta irakasleen behar espezifikoak lotu behar zaizkie, eta euskal hezkuntza-sistemaren printzipio pedagogikoekin eta lehentasunezko ildoei lotzeko. Jarduera praktikoei ere osatu behar da, eta etengabe ebaluatu, beharren arabera doitzeko.



3. Testuinguru horretan, hauek dira Hezkuntza Sailaren lehentasunezko ildoak 2024-2025 ikasturterako::

- lidergo pedagogikoa eta hezkuntzaren eraldaketa
- curriculumaren garapena eta ebaluazioa
- eskola inklusiboa, bizikidetza eta ongizatea

4. Bestalde, Berritzegune Nagusiak formakuntza-eskaintza egokitu du, koherentzia, ordena eta jasangarritasuna ziurtatzeko, gure erkidegoko ikastetxe publikoek dituzten hezkuntza-behar eta -erronken ildotik. Horretarako, lau ikuspegi hauetan oinarritutako eskaintzaren banaketa ezarri du:

- ikastetxeetako profil profesional espezifikoei zuzendutako formakuntza
- klaustroari edo klaustroko profesional-talde bati zuzendutako formakuntza
- Praktika Komunitate Profesionalen bidez bideratutako formakuntza
- esperimentazio-fasean dauden proiektuei lotutako formakuntza

5. Formakuntza-eskaintza honetan dauden formazio-jarduera batzuk **Zuzendaritza-eginkizuna betetzen hasteko prestakuntza-programa espezifikoa (ZEB_HPPE)** hautazko atala osatzeko balio dezakete. Eskaintzan zehar **itsasargiaren** ikurrarekin adieraziko dira.



Era berean, **BeAk Trebatzen** programa espezifikoa hautazko atala osatzeko balio dezakeen eskaintzak **erle** ikurrarekin adieraziko dira.

Jarraian, lau begirada horietako bakoitza garatzen da:

a. Lehen begirada. Ikastetxeetako profil profesional espezifikoei zuzendutako formakuntza

Hauek dira ikastetxeetan identifikatutako profil profesional espezifikoak:

- zuzendari berriak izango diren irakasleak
- zuzendaritza mentoreak eta zuzendaritza berriak
- zuzendaritza-taldeak
- BeA figurak
- berrikuntza-orduak dituzten irakasleak (BODI irakasleak)
- BAT taldeak
- orientatzaileak
- irakasle aholkulariak (kontsultoreak)
- HIPI irakasleak
- EUSLE irakasleak
- etapa, maila, espezialitate edo ezaugarri jakinetako irakasleak.
- Hezkuntza Laguntza Berriazko Premiak (HLBP) ekipoak

Profil profesional espezifikoei zuzendutako formakuntza-eskaintza dokumentu honen [V. eranskinean](#) zehazten da; baina, laburbilduz, formakuntza-eskaintza hau aurreikusten da:

Formakuntza-eskaintza	Nori zuzendua	Derrigorrezkoa / Hautazkoa
- Zuzendaritza-eginkizuna betetzen hasteko prestakuntza-programa espezifikoa (aurrerantzean:  ZEB_HPPE)	Datorren ikasturtean zuzendari izango diren irakasleak eta ZEB_HPPE akreditaziorik ez dutenak.	Derrigorrezkoa
- Zuzendaritza-taldeentzako etengabeko formakuntza  (zuzendarien mintegiak, ikasketa-buruen mintegiak, mentoretza, monografikoak,...)	Zuzendaritza-taldeak	Hautazkoa
- <i>BeAk Trebatzen</i> programa (ikus III. eranskina) 	BeA figurak	Derrigorrezkoa: programaren jardura preskriptiboak
- Zientziaren didaktika kanpo-espazioan (mintegiak, ikastaroak eta materiala sortzea)  → guztira 30 ordu - EA 2030 (mintegiak, Tokiko agenda)  → guztira 30 ordu - EA 2030 (koordinatzaile berriei prestakuntza)  → guztira 30 ordu - Erasmus+ ikastetxe hasi berrientzat   → 20 ordu - Erasmus+ ikastetxe arituentzat   → 20 ordu - Mugimendu Autonomia Haur Hezkuntzan (Alfileteroak)  → 15, 60, 30 ordu - Ulibarri programa : HN mintegia + EHB jardunaldia → guztira 25 ordu - Eskola Adimentsua : mintegia hasi berrientzat → 30 ordu	BeA figurak edo Berrikuntza orduak dituzten irakasleak	Hautazkoak



– Eskola Adimentsua ¹ : praktika-saioak, gaian hasita dauden ikastetxeentzat → 20 ordu		
– STEAM mintegia ² → 20 ordu		
– Bizikidetza eta hezkidetza mintegia → 20 ordu.	BAT taldekidea	Derrigorrezkoa
– Ongizate eta babeserako koordinatzaileentzat online ikastaroa ¹ → 10 ordu	Ongizate eta babeserako koordinatzaile berriak	Derrigorrezkoa
– Errestaurazio-praktikak ikastaroa : elkarriketa-zirkuloak ¹ → 5 ordu	BAT taldekidea	Hautazkoa
– Hezkidetza modulua I ^{1,2} → 20 ordu	Hezkidetza arduradun berrientzat	Derrigorrezkoa
– Hezkidetza modulua II ^{1,2} → 20 ordu	Hezkidetza arduraduna (esperientziaduna)	Hautazkoa
– Irakasle aholkularientzako mintegia → 20 ordu	Irakasle aholkulariak	Hautazkoa
– Orientatzaileentzat mintegia → 20 ordu	Orientatzaileak	Hautazkoa
– Orientatzaile eta aholkulari berrientzat formazioa → 16 ordu	Irakasle aholkulari eta orientatzaile berriak	
– PT irakasleentzat mintegia → 20 ordu	PT irakasleak	Hautazkoa
– Entzumen eta hizkuntza irakasleen (EHI) mintegia → 20 ordu	ALEak	Hautazkoa
– Adimen Gaitasun Handien inguruko ikastaroa (irakasleak) → 10 ordu	LH1, LH6, DBH1 irakasleak	Derrigorrezkoa
– Adimen Gaitasun Handien inguruko ikastaroa (aholkulari eta orientatzaileak) → 6 ordu	Irakasle aholkulariak eta orientatzaileentzako	Derrigorrezkoa
– HIPI irakasleak trebatzen → 30 eta 15 ordu	HIPI irakasleak	Hautazkoa
– Early Start to English mintegia (Haur Hezkuntzan ingelesa irakasten laguntzeko mintegia) → 15 ordu	Ingelesa ematen duten Haur Hezkuntzako maisu maistrak	Hautazkoa
– EUSLE prestakuntza (hasierako ikastaroa + mintegia + jardunaldia) → 40 eta 25 ordu	EUSLE irakasleak	Hautazkoa

b. Bigarren begirada. Klaustro osoari edo klaustroko profesional-talde bati zuzendutako formakuntza

2024-2025 ikasturtean, bereziki eragin nahi da bigarren ikuspegi honetan, klaustro osorako formakuntza inbertsio baliotsua baita gure eskola-komunitatearen hazkunde profesionalean eta hezkuntza-arrakastan. Irakasle-taldearen barruko kohesioa eta lankidetza indartzeaz gain, irakaskuntzaren kalitatea eta sendotasuna ere hobetzen ditu, azken batean ikasle guztiei egiten die mesede.



Klaustroari zuzendutako formakuntza honek formatu hauek izan ditzake:

- **Ubide formatuko formakuntza:** Ubide hitzaren esanahidunaren metafora berreskuratzen da, joan den ikasturteko trebakuntza digitala prestatzeko erabili zena. Formatu mistoko formakuntza honek osagai hauek izango ditu:
 - i. Formakuntza-saioak. Ikastetxeko zuzendaritzak erabakiko du zer pertsona den egokiena, BeA figura edo BODI irakasleak, klaustroari ezagutza helarazteko. Pertsona horrek jasoko du formakuntza, aurrez aurre, eta Berritzegune Nagusiaren ardurapean.
 - ii. Formakuntza-paketea eta beharrezko materiala, hautatutako pertsonak klaustroari prestakuntzaren edukia transmititu diezaion. Prestakuntzaren zati honek formatu mistoa izango du: alde batetik, online, eta, bestetik, gogoetarako, zalantzak argitzeko eta erabakiak hartzeko aurrez aurreko topaketak. Arduradunaren lana izango da ikastetxean aurrez aurreko topaketak dinamizatzea.
 - iii. Klaustroaren formakuntzaren jarraipena egiteko mintegiak, topaketa, hausnarketa eta zalantza-trukeen bidez. Prestakuntzaren zati honetan ikastetxeetako arduradunek parte hartuko dute.
- **MOOC.** MOOC (Massive Open Online Course) online ikastaro ireki eta masiboa da, eta Internet bidez ikus-entzule askori prestakuntza eskaintzeko diseinatuta dago. MOOCek, oro har, bideoak, irakurketak, jarduera praktikoak eta ebaluazioak konbinatzen dituzte, eta gaian adituak diren pertsonen ematen dituzte.
- **NOOC.** NOOC bat (Nano Open Online Course) lineako ikastaro ireki baten bertsio laburragoa eta kontzentratuagoa da, gai jakin bati buruzko prestakuntza formatu trinko eta eskuragarrian eskaintzeko diseinatua. MOOCek ez bezala, aste edo hilabete batzuk har baititzaizkete, NOOCak gai jakin batean zentratzen dira eta egun edo ordu gutxi batzuk baino ez dute irauten. Ikastaro hauek gai zehatz bati buruzko ikaskuntza azkar eta eraginkorra emateko diseinatuta daude, askotan online baliabide eta jarduera interaktibo ugari erabiliz.
- **Tutoretzapeko online prestakuntza.** Online ikastaro tutorizatu bat lineako hezkuntza-esperientzia bat da, non parte-hartzaileek orientazio eta laguntza zuzena jasotzen duten tutore edo irakasle batengandik ikasturtean zehar. Online ikastaro autogidatueta ez bezala, non parte-hartzaileek modu independentean lan egiten duten, tutoretzapeko ikastaro batean, tutorea presente dago instrukzioa eskaintzeko, galderak erantzuteko, parte-hartzaileen aurrerapenari buruzko atzeraelikadura emateko eta haien arteko elkarreragina errazteko. Horrek ikaskuntza-esperientzia pertsonalizatuagoa eta kolaboratiboagoa sortzen du, parte-hartzaileek laguntza eta gida lor baititzaizkete ikaskuntza-prozesuan.

Helburua da, kasu guztietan, prestakuntzetan parte hartzen duten pertsonen eskuratutako ezagutzak, edozein formatutakoak direla ere, klaustroan ezagutza partekatzeko uneak ezartzea, erabaki garrantzitsuak hartzea eta prestakuntza horrek eta hartutako erabakiek ekarri duten eragina neurtzea.

Formazkuntza-eskaintza hau dokumentu honen [V. eranskinean](#) zehaztuko da; baina laburbilduz honako eskaintza aurreikusten da.



Formakuntza-eskaintza	Formatua	Orduak
Matematikaren didaktika (etapa guztiak) ²	Ubidea	20
Zientziaren didaktika: STEM funtsezko kompetentziaren alderdi zientifikoak (etapa guztiak) ¹	Ubidea	15
STEM funtsezko kompetentziaren alderdi zientifikoak (lehen hezkuntza) ²	Tutoretzapeko online prestakuntza	15
STEM funtsezko kompetentziaren alderdi zientifikoak (bigarren hezkuntza) ²	Tutoretzapeko online prestakuntza	15
Programazio didaktikoak eta ikas-egoerak ²	NOOC	5
Ebaluazio hezigarria ²	MOOC	30
Kodozentzia ²	MOOC	zehazteke
Teknika kooperatiboak ²	MOOC	zehazteke
Irakurketa Estrategia ikastetxeetara ^{1,2} (<i>Euskal Hezkuntza Sistemarako Irakurketa Estrategia</i> berria ezagutarazteko prestakuntza)	Ubidea	5
Ikasteko irakurri ² (arlotan, jakintzagai edo eremu guztietako testu akademikoaren irakurketa lantzeko prestakuntza)	Ubidea	10
Hizkuntzak arlo guztietan: trataera integrala ²	Ubidea	15
Hiru hizkuntzen trataera integratua ²	Ubidea	15
Hezkuntza Baliabide Irekiak HBI (ExElearning bitartez) ²	Ubidea	20
Teknopedagogia ²	Ubidea	20
Adimen artifiziala sentsibilizazioa ²	Ubidea	20
E-Twinning (ikastetxe hasi berrientzat) ²	Ubidea	15
E-Twinning (esperientziadun ikastetxeak) ²	Ubidea	15
Office 365 hezkuntzan ² 1. modulua: Microsoft Teams eta Microsoft Learn. 2. modulua: Teams Ikasgelan eta MS Forms. 3. modulua: OneNote, MS Word eta MS Power Point. 4. modulua: Sharepoint. 5. modulua: Sway 6. modulua: Wakelet, Whiteboard eta Stream. 7. modulua: Eskuragarritasuna eta Hezkuntza inklusiboa, Teknologia eskuragarriak infografia, Irakurle murgiltzailea, Nire baliabideen eskuragarritasuna egiaztatzea eta Microsoft Edge-n irakurle murgiltzailea eta irudien bilaketa. 8. modulua: Insights, Insights eta Teams, Reflect Teams eta Reflect OneNoten.	MOOC	60 ordu guztira. Moduloka egin daiteke

c. Hirugarren begirada. Praktika-komunitate profesionalak

Hirugarren begirada dokumentu honen hurrengo puntuan zehazten da. ([ikus 10. Puntua](#))

d. Laugarren begirada. Esperimentazio-fasean dauden proiektuekin lotutako formakuntza.

Formakuntza mota honen barruan daude berrikuntza esperimentaleko proiektuak, zenbait ikastetxe modu pilotuan ezartzen ari direnak.

5. Nolanahi ere, ikastetxeko zuzendaritza-taldearen ardura izango da, BeA figuraren laguntzarekin, Ikastetxearen Hezkuntza Proiekturako egokiak diren formakuntza-ildoak identifikatzea, Hezkuntza Sailaren ildo estrategikoekin bat etorriz.



6. Ikastetxean berrikuntza-arduradunaren eginkizunak beteko dituen pertsona(k) izendatzeko proposamenaren barruan (jarraibide hauetako [IV eranskinean](#)), espazio bat prestatuko da zuzendaritzek adieraz dezaten zer formakuntza-jardueretan parte hartzea aurreikusten duten 2024-2025 ikasturtean.

[↑Aurkibidea](#)

Hamargarrena. Praktika-komunitate profesionalak

1. Praktika-komunitate bat ikastetxeen arteko lan-talde bat da, berrikuntza-proiektu jakin baten diseinuari, garapenari, jarraipenari eta ebaluazioari buruzko esperientziak, ezagutzak eta praktika onak partekatzen dituen.

2. 2023-2024 ikasturtean, praktika profesionaleko komunitate baten bidez garatzen ari diren berrikuntza-proiektuak identifikatu dira. Praktika-komunitate profesional horiei buruzko oinarritzko informakuntza erantsi da [VI eranskinean](#). Identifikazio horrek ez du esan nahi ikasturtean zehar praktika-komunitate profesional berriak eratu ezin daitezkeenik, aurretik egindako prestakuntza-jarduera bati (monografikoa, ikastaroa...) jarraipena emateko eta eraginkortasuna bermatzeko.

3. Praktika-komunitate batean parte hartzea borondatezkoa izango da ikastetxearentzat, baina komunitate horretan atxikitzeko konpromisoa hartu ondoren, ikastetxeak kasuan kasuko praktika-komunitateak ezartzen dituen konpromisoak bete beharko ditu.

4. Ikastetxeko zuzendaritzak erabakiko du praktika-komunitate horretan BeAk ala beste irakasleren batek parte hartuko duen. Kasu horretan, BeA figurak irakasle horrekin koordinatzeko ardura izango du, praktika-komunitate horren babespean garatzen diren berrikuntza-proiektuen ezarpenaren jarraipena egin ahal izateko.

5. Praktika-komunitate horiek Berritzegune Nagusiko esparru bateko aholkulari baten laguntza izan dezakete, baina lehentasuna emango zaie beren kideen arteko autoantolamenduari eta erantzunkidetasunari.

6. Praktika-komunitate horietan, ikaskuntza partekatuko ekintzak landuko dira, ikastetxeetan bertan kokatutako esperientziak trukatzeko eta komunikatzeko gune irekien bidez. Behaketan, trukean eta formakuntzan oinarritutako ekintza horien bidez, BeA figuren konpetentzien garapena sustatu nahi da, eta kasuan kasuko hezkuntza berriztatzeko eta eraldatzeko proiektua garatzeko beharrezkoak diren formakuntza-bitartekoak eskaini.

7. Ikastetxean berrikuntza-arduradunaren eginkizunak beteko dituen pertsona(k) izendatzeko proposamenaren barruan (jarraibide hauetako [IV eranskinean](#) jaso), espazio bat prestatuko da zuzendaritzek adieraz dezaten zer praktika-komunitatetan parte hartzea aurreikusten duten 2024-2025 ikasturtean.

[↑Aurkibidea](#)



Hamaikagarrena. BeA figurei akonpainatzeko eta informatzeko, koordinatzeko eta parte hartzeko prozedurak

1. BeA figurek beren funtzioak betetzeko beharrezkoa den laguntza izango dute. BeA figuren laguntza, koordinazioa eta parte-hartzea eraginguneetan garatuko diren mintegien bidez egingo da batik bat (ikus III. eranskineko [BeA mintegiak](#)).

2. Oro har, eragingune bakoitzak arduradun bat izango du. Pertsona hori Berritzegune Nagusiko aholkulari bat izango da. Aurretik aipatutako mintegiak koordinatzeaz gain, eraginguneetako arduradun horiek izango dira BeA figurei beren eginkizunetan laguntzeko lehen figura (ikus I. eranskineko [Eraginguneetako arduradunak](#)).

3. [Curriculumgunea](#) web-atarian bilduko da BeA figurentzako informazio interesgarri guztia: formakuntza, laguntza, berrikuntza kudeatzeko tresnak ... Atari horretan bertan, parte hartzeko zenbait foru gaituko dira, eta Hezkuntza Saileko lineako ikastaroen plataformara —[Moodlegunera](#)— sartzeko esteka erantsiko da.

4. BeA figurentzako informazioa (formakuntza-jarduera bakoitzeko deialdiak, ebaluazioak ...) ikastetxeko posta ofizialera (0xxxxxaa@hezkuntza.net) eta beren irakasle.eus kontura bidaliko da. Era berean, ikastetxeak eta BeA berak kontu ofizial horiek erabiliko dituzte dagozkien zerbitzuekin (Berritzegune Nagusia, Hezkuntza Sailburuordetza ...) posta elektronikoz komunikatzeko.

[↑Aurkibidea](#)

Hamabigarrena. Ikastetxeetako gainerako koordinazio- eta gobernu-organikoekin koordinatzea

1. BeA ikastetxeko koordinazio- eta gobernu-organoeekin koordinatuko da, gutxienez, maiztasun honekin:

- a) hamabostean behin zuzendaritza-taldearekin
- b) hilean behin Pedagogia Batzordearekin.
- c) urtean lautan klaustroarekin: bat ikasturtea hasieran, eta beste hirurak hiruhileko bakoitzaren amaieran.

2. Era berean, hezkuntza-ibilbide bereko ikastetxeetako BeA figurekin koordinatuko da, etapen arteko trantsizioa erraztuko duen estrategia komuna garatzen laguntzeko. Gomendatzen da koordinazio hori, gutxienez, hiru hilean behin egitea.

[↑Aurkibidea](#)

Hamahirugarrena. Jarraipena eta ebaluazioa

1. Bi BeA edo gehiago dituzten ikastetxeen kasuan, ikastetxeko zuzendaritzak pertsona horien arteko koordinaziorako beharrezkoak diren espazioak eta denborak ziurtatuko ditu.

2. Ikastetxearen Urteko Planean figura horien zereginen plangintza jaso beharko da, baita ikastetxean egingo diren jarraipen- eta ebaluazio-mekanismoak ere. Horretarako, tresna bat jarriko da ikastetxeetako



zuzendaritzen esku, lan hori planifika dezaten eta BeA figurei esleitu zaizkien zereginetan egindako jarduerak bildu ditzaten, hartara, samurrago egingo zaie beren lanaren jarraipena eta azken ebaluazio egitea.

3. Ikastetxeak azken ebaluazioa egingo du, eta bertan jasoko ditu bai esleitutako zereginen betetze-maila eta bai hurrengo ikasturterako hobekuntza-proposamenak. Hezkuntza Sailak ebaluazio hori egiteko eredu bat emango du, eta ebaluazioa Ikastetxearen Urteko Memoriaren parte izango da.

4. Hezkuntza Ikuskaritzak BeA figurek ikastetxean egiten duten lana gainbegiratuko du, bisiten bidez edo bestelako ikuskatze-tresnen bidez; izatez, BeA figuren lanaren jarraipena egingo du eta BeAk orientatzeko eta hobetzeko proposamenak egingo ditu, honako jarraibide hauek erreferentziazat hartuta.

[↑Aurkibidea](#)

Vitoria-Gasteiz, 2024ko ekainaren 4an

Begoña Pedrosa Lobato

HEZKUNTZA SAILBURUORDEA



ERANSKINAK:

[I. ERANSKINA](#). Ikastetxeei beren BeA figuretarako ordu-kreditua esleitzeko irizpideak, eta ikastetxeen antolamendua eraginguneetan

1. [ARABAKO](#) ERAGINGUNEKO IKASTETXEAK
2. [BILBO](#) HANDIKO ERAGINGUNEKO IKASTETXEAK
3. [EZKERRALDEKO](#) ERAGINGUNEKO IKASTETXEAK
4. [ESKUMALDEKO](#) ERAGINGUNEKO IKASTETXEAK
5. [BARRUTIALDEKO](#) ERAGINGUNEKO IKASTETXEAK
6. [DONOSTIA-IRUNGO](#) ERAGINGUNEKO IKASTETXEAK
7. [DEBA-UROLAKO](#) ERAGINGUNEKO IKASTETXEAK
8. [BURUNTZALDEA-GOIERRIKO](#) ERAGINGUNEKO IKASTETXEAK

[II. ERANSKINA](#). Ikastetxeko berrikuntza-arduradunari edo -arduradunei ordu-kredituak esleitzeko irizpideak

[III. ERANSKINA](#). BeA figurentzat formakuntza eta laguntza-programa espezifikoa: *BeAk Trebatzen*

[IV. ERANSKINA](#). Berrikuntzarako ordu-kreditua eta BeA figurak esleitzeko proposamena egiteko prozedur

[V. ERANSKINA](#). Ikastetxeetara bideratutako formakuntza-eskaintza

[VI. ERANSKINA](#). Praktika-komunitateen eskaintza

[↑Aurkibidea](#)

I. eranskina. Ikastetxeei berrikuntzarako ordu-kreditua esleitzeko irizpideak, eta ikastetxeen antolamendua eraginguneetan

IKASTETXEEI BERRIKUNTZARAKO ORDU-KREDITUA ESLEITZEKO IRIZPIDEAK

“Hezkuntza Saileko unibertsitatez kanpoko irakasle funtzionarioen mahai sektorialaren 2022ko maiatzaren 26ko Akordioan, Hezkuntza Sailaren mendeko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetan plantilla esleitzeko irizpideei buruzkoan” jasotzen dira ikastetxeei beren BeA figuretarako ordu-kreditua esleitzeko irizpideak. Akordio horrek honela dio:

Ikastetxeetako irakasle-plantilla zuzkitzeko etapa bakoitzeko irizpide espezifikoak.

1. Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetarako plantilla zuzkitzeko irizpideak.

Ikastetxeko baliabide egonkor komunak (...)

- **Berrikuntza- eta formazio-proiektuen koordinatzailea.** Gehienez 9 talde, lanaldi erdiko kreditua; 9 eta 19 talde artean, lanaldi oso bateko kreditua; 20 eta 29 talde artean, lanaldi eta erdiko kreditua; eta 30 talde baino gehiago, 2 lanaldi osoko kreditua.

2. Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetarako plantilla zuzkitzeko irizpideak.

Ikastetxeko baliabide egonkor komunak (...)

- **Berrikuntza- eta formazio-proiektuen koordinatzailea.** Irakasle-kreditu bat esleitzen da, talde-kopuruaren arabera, ikastetxeak bere berrikuntza- eta formazio-proiektuak koordinatu ditzan. Kreditu hori lanaldi osoa izango, ikastetxe guztietan, gehienez 10 talde badira; eta beste lanaldi erdi bat gehiago beste 10 talde edo zatiki gehigarri bakoitzeko. (...)

3. IPI ikastetxeetan plantilla zuzkitzeko irizpideak.

Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe integratuetan, etapa bakoitzerako bereizita kalkulatu da zuzkidura.

IKASTETXEEN ANTOLAMENDUA ERAGINGUNEETAN

Ikastetxe guztiei eta, zehazki, BeA figurei erantzun integrala emateko eta, aldi berean, ikastetxe guztietatik hurbil egoteko, ikastetxeak zortzi jardun-espaziotan banatu dira (aurrerantzean eraginguneak). Eraginguneak dira BeA figuren eta eraginpeko ikastetxeen formakuntza, akonpainamendua eta aholkularitza antolatzeke gutxienezko egiturak.

Eragune bakoitzak arduradun bat du. Pertsona hori Berritzegune Nagusiko aholkulari bat da eta arduradun hori izango da BeA figurei beren eginkizunetan laguntzeko lehen figura.



Eragingunetako arduradunak:

Eragingunea	Arduraduna	Posta elektronikoa	Telefonoa
Araba	Barbara Razola Mayor	b.razolam@berritzeguneak.eus	945218019
Bilbo-Handia	Uxue Gonzalez Bañuelos	u.gonzalez.banuelos@berritzeguneak.eus	944288185
Ezkerraldea	Almudena Arenas Vara	a.arenas@berritzeguneak.eus	944288179 / 688827602
Eskumaldea	Miren Blasco Egurrola	m.blasco@berritzeguneak.eus	944288181
Barrutialdea	Marina Gigosos Mozo	m-gigosos@berritzeguneak.eus	944288182
Donostia-Irun	Aitziber López de Sabando Troncoso	a.lopezdesabando@berritzeguneak.eus	688643910
Deba-Urola	Ainhoa Basurco Arrizabalaga	ai.basurco@berritzeguneak.eus	688821675
Buruntzaldea-Goierra	Maidier Esnaola Otamendi	m.esnaola.o@berritzeguneak.eus	688667369

[↑Aurkibidea](#)

[↑Eranskinak](#)



1. Arabako eraginguneko ikastetxeak

Eraginguneko arduraduna: Barbara Razola Mayor; b.razolam@berritzeguneak.eus; 945218019

Zk.	KODEA	IKASTETXEA	UDALERRIA
1.	010002	CEIP Dulantzi HLHI	Dulantzi
2.	010003	CEIP Zabaleko HLHI	Amurrio
3.	010009	CEIP Aramaixo Herri Eskola HLHI	Aramaio
4.	010010	CEIP Arteko Gure Ama HLHI	Artziniega
5.	010012	CPI Ikasbidea Ikastola IPI	Arratzua-Ubarrundia
6.	010013	CEIP Araia Herri Eskola HLHI	Asparrena
7.	010020	CEIP Elciego HLHI	Eltziego
8.	010021	CEIP Labastida HLHI	Bastida
9.	010022	CEIP Victor Tapia HLHI	Guardia
10.	010027	CEIP Areta Herri Eskola HLHI	Laudio
11.	010039	CEIP Maeztu HLHI	Maeztu
12.	010040	EEI Okondo HE	Okondo
13.	010041	CEIP Ramiro De Maeztu HLHI	Oion
14.	010042	CEIP Unamunzaga HLHI	Erriberabeitia
15.	010046	IES Aniturri BHI	Agurain
16.	010048	CEIP Izarra HLHI	Urkabustaiz
17.	010049	CEIP Gobeia HLHI	Gaubea
18.	010051	CEIP Abendaño Ikastola HLHI	Gasteiz
19.	010052	CEIP Adurza Ikastola HLHI	Gasteiz
20.	010053	CEIP Aranzabela Ikastola HLHI	Gasteiz
21.	010054	CEIP Landazuri Ikastola HLHI	Gasteiz
22.	010071	CEIP Luis Dorao HLHI	Gasteiz
23.	010076	CEIP Miguel De Cervantes HLHI	Gasteiz
24.	010080	CEIP Padre Orbiso HLHI	Gasteiz
25.	010100	CEIP Ramon Bajo HLHI	Gasteiz
26.	010103	CEIP San Martin HLHI	Gasteiz
27.	010105	CEIP Sta. Maria De Vitoria HLHI	Gasteiz
28.	010117	CEE Gorbeialde HBI	Gasteiz
29.	010133	IES Federico Baraibar BHI	Gasteiz
30.	010134	IES Francisco De Vitoria BHI	Gasteiz
31.	010135	IES Los Herran BHI	Gasteiz
32.	010140	CEIP Odon De Apraiz Ikastola HLHI	Gasteiz
33.	010142	CEIP Pedro Ignacio Barrutia Ikastola HLHI	Gasteiz
34.	010153	CEIP Toki Eder Ikastola HLHI	Gasteiz
35.	010156	CEIP Virgen De Oro HLHI	Zuia
36.	010157	IES Murgia BHI	Murgia
37.	010158	CEIP Jose Miguel Barandiaran HLHI	Iruña Oka
38.	010165	CEIP Etxaurren Ikastola HLHI	Aiara



39.	010172	CEIP Lantziego Ikastola HLHI	Lantziego
40.	010179	CEIP P. Lope De Larrea Ikastola HLHI	Agurain
41.	010185	CEIP Abetxuko Ikastola HLHI	Gasteiz
42.	010192	CEIP Umandi Ikastola HLHI	Gasteiz
43.	010231	CEIP San Ignacio HLHI	Gasteiz
44.	010257	IES Koldo Mitxelena BHI	Gasteiz
45.	010266	IES Miguel De Unamuno BHI	Gasteiz
46.	010316	CEIP Garazi HLHI	Legutio
47.	010317	CEIP Latorro HLHI	Laudio
48.	010319	IES Zaroabe BHI	Amurrio
49.	010327	CEIP Mendiko Eskola HLHI	Amurrio
50.	010329	IES Mendebaldea BHI	Gasteiz
51.	010330	IES Ekialdea BHI	Gasteiz
52.	010332	CEIP Antonio Lopez De Guereñu-Jose Mardones HLHI	Gasteiz
53.	010333	CEIP Judimendi HLHI	Gasteiz
54.	010335	IES Badaia BHI	Iruña Oka
55.	010338	CEIP Lamuza HLHI	Laudio
56.	010339	CEIP Luis Elejalde-Rogelia De Alvaro HLHI	Gasteiz
57.	010340	CEIP Divino Maestro-Maria De Maeztu HLHI	Gasteiz
58.	010342	CEIP Angel Ganivet-Santa Lucia HLHI	Gasteiz
59.	010343	CEIP Aranbizkarra Ikas Komunitatea HLHI	Gasteiz
60.	010349	IES Samaniego-Laguardia BHI	Guardia
61.	010350	CEIP Gorbeia Eskola HLHI	Zigoitia
62.	010351	IES Laudio BHI	Laudio
63.	010450	CEIP Ibaiondo HLHI	Gasteiz
64.	010503	CEIP Salburua HLHI	Gasteiz
65.	010504	CEIP Zabalgana HLHI	Gasteiz
66.	010510	CEIP Lakuabizkarra HLHI	Gasteiz
67.	010512	IES Lakua BHI	Gasteiz
68.	010513	IES Zabalgana BHI	Gasteiz
69.	010515	CEIP Mariturri HLHI	Gasteiz
70.	010572	CPI Sansomendi IPI	Gasteiz
71.	010604	CPI Mendialdea IPI	Kanpezu
72.	010605	CEIP Errekabarri HLHI	Gasteiz
73.	010613	CPI Samaniego IPI	Gasteiz
74.	010617	CEIP Aldaialde HLHI	Gasteiz
75.	010723	CEIP Barrundia HLHI	Ozaeta
76.	010514	IES Salburua BHI	Gasteiz
77.	014379	CEIP Urduña HLHI	Urduña



2. Bilbo Handiko eraginguneko ikastetxeak

Eraginguneko arduraduna: Uxue Gonzalez Bañuelos, u.gonzalez.banuelos@berritzeguneak.eus, 944288185

Zk.	KODEA	IKASTETXEA	UDALERRIA
1.	014027	CEIP Arrankudiaga HLHI	Arrankudiaga
2.	014029	CEIP Arrigorriaga HLHI	Arrigorriaga
3.	014073	CEIP Jose Etxegarai HLHI	Basauri
4. 1	014074	CEIP Kareaga-Goikoa HLHI	Basauri
5.	014080	CEIP Sofia Taramona HLHI	Basauri
6.	014086	IES Urbi BHI	Basauri
7.	014087	IES Uribarri BHI	Basauri
8.	014105	CEIP Artatse HLHI	Bilbo
9.	014108	CEIP Basurto HLHI	Bilbo
10.	014109	CEIP Birjinetxe HLHI	Bilbo
11.	014111	CEIP Cervantes HLHI	Bilbo
12.	014114	CEIP Deusto HLHI	Bilbo
13.	014115	CEIP Elejabarri HLHI	Bilbo
14.	014117	CEIP Indautxuko Eskola HLHI	Bilbo
15.	014119	CEIP Gabriel Aresti HLHI	Bilbo
16.	014123	CEIP Ing. Jose Orbegoza Gorostidi HLHI	Bilbo
17.	014124	CEIP Juan M. Sanchez Marcos HLHI	Bilbo
18.	014126	CEIP Luis Briñas-Santutxu HLHI	Bilbo
19.	014129	CEIP Arangoiti HLHI	Bilbo
20.	014130	CEIP Maestra Isabel Gallego Gorria HLHI	Bilbo
21.	014131	CEIP Maestro Garcia Rivero HLHI	Bilbo
22.	014137	CEIP Pio Baroja HLHI	Bilbo
23.	014140	CPI Pagasarribide IPI	Bilbo
24.	014149	CEIP Sra. Vda. De Epalza HLHI	Bilbo
25.	014150	CEIP Tomas Camacho HLHI	Bilbo
26.	014151	CEIP Txurdinaga HLHI	Bilbo
27.	014153	CEIP Uribarri HLHI	Bilbo
28.	014157	CEIP Zamakola-Juan Delmas HLHI	Bilbo
29.	014159	CEIP Zorrotza Fray Juan HLHI	Bilbo
30.	014160	CEIP Zurbaran HLHI	Bilbo
31.	014161	CEIP Zurbaranbarri HLHI	Bilbo
32.	014186	IES Botikazar BHI	Bilbo
33.	014187	IES Martin De Bertendona BHI	Bilbo
34.	014188	IES Gabriel Aresti BHI	Bilbo
35.	014189	IES Miguel De Unamuno BHI	Bilbo



36.	014190	IES Txurdinaga Behekoa BHI	Bilbo
37.	014191	IES Rekaldeberri BHI	Bilbo
38.	014192	IES San Adrian BHI	Bilbo
39.	014200	IES Eskurtze BHI	Bilbo
40.	014500	CEIP Arizko Ikastola HLHI	Basauri
41.	014508	CPI Deustuko Ikastola IPI	Bilbo
42.	014509	CEIP Intxixu Ikastola HLHI	Bilbo
43.	014510	CPI Karmelo Ikastola IPI	Bilbo
44.	014922	CEIP Basozelai-Gaztelu HLHI	Basauri
45.	014924	CEIP San Inazio/San Ignacio HLHI	Bilbo
46.	015014	CEIP Bizkotxalde HLHI	Basauri
47.	015055	CEIP Zazpilanda HLHI	Bilbo
48.	015072	IES Arrigorriaga BHI	Arrigorriaga
49.	015074	IES Ibaizabal BHI	Bilbo
50.	015075	IES Luis Briñas-Santutxu BHI	Bilbo
51.	015077	IES Solokoetxe BHI	Bilbo
52.	015078	IES Zorroza BHI	Bilbo
53.	015087	IES Etxebarri BHI	Etxebarri
54.	015099	CEIP Mujika HLHI	Bilbo
55.	015105	CPI Ugao IPI	Ugao
56.	015188	IES Ibarrekolanda BHI	Bilbo
57.	015191	IES San Ignacio BHI	Bilbo
58.	015245	CEIP Zaratamo HLHI	Zaratamo
59.	015360	CEIP Miribilla HLHI	Bilbo
60.	015361	CEIP Iruarteta HLHI	Bilbo
61.	015723	CPI Soloarte IPI	Basauri
62.	015724	IES Ignacio Ellacuria-Zurbaran BHI	Bilbo
63.	015725	CEIP Kukullaga HLHI	Basauri
64.	015733	CEIP Otxarkoaga HLHI	Bilbo
65.	015764	IES Artabe BHI	Bilbo

[↑Aurkibidea](#)
[↑Eranskinak](#)



3. Ezkerraldeko eraginguneko ikastetxeak

Eraginguneko arduraduna: Almudena Arenas Vara, a.arenas@berritzeguneak.eus, 944288179 / 688827602

Zk.	KODEA	IKASTETXEA	UDALERRIA
1.	014004	CEIP Buenos Aires HLHI	Abanto Zierbena
2.	014005	CEIP El Casal HLHI	Abanto Zierbena
3.	014006	CEIP Mtro. Askartza Isusi HLHI	Abanto Zierbena
4.	014010	IES Dolores Ibarruri BHI	Abanto Zierbena
5.	014026	CEIP Angel Larena HLHI	Artzentales
6.	014038	CEIP Arteagabeitia HLHI	Barakaldo
7.	014046	CEIP Juan Ramon Jimenez HLHI	Barakaldo
8.	014048	CEIP Larrea HLHI	Barakaldo
9.	014049	CEIP Gurutzeta HLHI	Barakaldo
10.	014050	CEIP Mukusuluba HLHI	Barakaldo
11.	014051	CEIP Munoa HLHI	Barakaldo
12.	014053	CEIP Ntra. Sra. Del Pilar HLHI	Barakaldo
13.	014055	CEIP Rontegi HLHI	Barakaldo
14.	014057	CEIP Zuazo HLHI	Barakaldo
15.	014064	IES Antonio Trueba BHI	Barakaldo
16.	014065	IES Cruces BHI	Barakaldo
17.	014066	IES Beurko BHI	Barakaldo
18.	014067	CEIP Ibaibe HLHI	Barakaldo
19.	014068	IES Minas BHI	Barakaldo
20.	014232	CEIP Concha HLHI	Karrantza
21.	014285	CEIP Eduardo Eskartzaga HLHI	Gordexola
22.	014370	CEIP Pedro Cantarrana HLHI	Muskiz
23.	014390	CEIP Gabriel Celaya HLHI	Portugalete
24.	014391	CEIP Kanpazar HLHI	Portugalete
25.	014392	CEIP Maestro Zubeldia HLHI	Portugalete
26.	014395	CEIP Ruperto Medina HLHI	Portugalete
27.	014396	CEIP Virgen De La Guia HLHI	Portugalete
28.	014398	IES Juan Antonio Zunzunegui BHI	Portugalete
29.	014400	CEIP La Arboleda HLHI	Trapagaran
30.	014401	CEIP La Escontrilla HLHI	Trapagaran
31.	014402	CEIP San Gabriel HLHI	Trapagaran
32.	014413	CEIP Las Viñas HLHI	Santurtzi
33.	014417	CEIP Serantes HLHI	Santurtzi
34.	014418	CEIP Itsasoko Ama HLHI	Santurtzi
35.	014426	CEIP Otxartaga HLHI	Ortuella
36.	014430	CEIP Albiz HLHI	Sestao
37.	014432	CEIP Kueto HLHI	Sestao



38.	014437	CEIP Vista Alegre HLHI	Sestao
39.	014440	IES Angela Figuera BHI	Sestao
40.	014441	IES Saturnino De La Peña BHI	Sestao
41.	014445	EEI La Baluga HE	Sopuerta
42.	014447	CEIP Turtziozko Eskola HLHI	Turtzioz
43.	014449	CEIP Mendia HLHI	Balmaseda
44.	014451	IES Balmaseda BHI	Balmaseda
45.	014459	CEIP Mimetiz HLHI	Zalla
46.	014492	CEIP Etorkizuna Ikastola HLHI	Abanto Zierbena
47.	014499	CEIP Alkartu Ikastola HLHI	Barakaldo
48.	014539	CEIP Muskizko Ikastola HLHI	Muskiz
49.	014926	CEIP Maestra Emilia Zuza Brun HLHI	Santurtzi
50.	014928	IES Ballonti BHI	Portugalete
51.	015006	CEIP Alonsotegi HLHI	Alonsotegi
52.	015080	IES Carranza BHI	Karrantza
53.	015092	IES Muskiz BHI	Muskiz
54.	015093	IES Ortuella BHI	Ortuella
55.	015095	IES Zalla BHI	Zalla
56.	015096	CEIP Bagatza HLHI	Barakaldo
57.	015178	IES Burdinibarra BHI	Trapagaran
58.	015516	CEIP Markonzaga HLHI	Sestao
59.	015625	IES Kantauri BHI	Santurtzi
60.	015626	IES Axular BHI	Santurtzi
61.	015683	CPI Antonio Trueba IPI	Portugalete
62.	015757	CPI Eretza Berri IPI	Gueñes

[↑Aurkibidea](#)
[↑Eranskinak](#)



4. Eskumaldeko eraginguneko ikastetxeak

Eraginguneko arduraduna: Miren Blasco Egurrola, m.blasco@berritzeguneak.eus, 944288181

Kop.	KODEA	IKASTETXEA	UDALERRIA
1.	014034	CEIP Urkitza HLHI	Bakio
2.	014090	CEIP Berango-Merana HLHI	Berango
3.	014283	CEIP Gatika HLHI	Gatika
4.	014287	CEIP Gorliz HLHI	Gorliz
5.	014288	CEIP Andra Mari HLHI	Getxo
6.	014290	CEIP Juan Bautista Zabala HLHI	Getxo
7.	014291	CEIP Larrañazubi HLHI	Getxo
8.	014294	CEIP San Ignacio HLHI	Getxo
9.	014296	CEIP Zubileta HLHI	Getxo
10.	014299	IES Julio Caro Baroja BHI	Getxo
11.	014327	CEIP Larrabetzu HLHI	Larrabetzu
12.	014331	CEIP Artatza Pinueta HLHI	Leioa
13.	014332	CEIP Lamiako HLHI	Leioa
14.	014335	CEIP San Bartolome HLHI	Leioa
15.	014336	CEIP Txomin Aresti HLHI	Leioa
16.	014339	IES Jose Miguel Barandiaran BHI	Leioa
17.	014363	CEIP Laukariz HLHI	Mungia
18.	014367	CEIP Legarda HLHI	Mungia
19.	014384	CEIP Plentzia HLHI	Plentzia
20.	014407	CEIP Lezama HLHI	Lezama
21.	014448	CEIP Elortza HLHI	Urduliz
22.	014464	CEIP Derio HLHI	Derio
23.	014466	IES Txorierrri BHI	Derio
24.	014470	CEIP Goiko-Landa HLHI	Erandio
25.	014471	CEIP Ignacio Aldekoa HLHI	Erandio
26.	014486	CEIP Gorondagane HLHI	Sondika
27.	014489	CEIP Zamudio HLHI	Zamudio
28.	014523	CEIP Geroa Ikastola HLHI	Getxo
29.	014528	CEIP Altzaga Ikastola HLHI	Leioa
30.	014529	CEIP Gobela Ikastola HLHI	Getxo
31.	014560	CEIP Altzaga Ikastola HLHI	Erandio
32.	014867	CEIP Laukizko Lauaxeta HLHI	Laukiz
33.	015015	CEIP Romo HLHI	Leioa
34.	015083	IES Astrabudua BHI	Erandio
35.	015084	IES Erandio BHI	Erandio
36.	015094	IES Sopela BHI	Sopela
37.	015104	CEIP Zipiriñe HLHI	Sopela



38.	015108	IES Mungia BHI	Mungia
39.	015109	IES Aixerrota BHI	Getxo
40.	015111	IES Artaza-Romo BHI	Leioa
41.	015143	IES Uribe-Kosta BHI	Plentzia
42.	015336	CEIP Lemoiz HLHI	Lemoiz
43.	015629	IES Ategorri BHI	Erandio

[↑Aurkibidea](#)[↑Eranskinak](#)



5. Barrutialdeko eraginguneko ikastetxeak

Eraginguneko arduraduna: Marina Gigosos Mozo, m-gigosos@berritzeguneak.eus, 944288182

Zk.	KODEA	IKASTETXEA	UDALERRIA
1.	014002	CEIP Traña Matiena HLHI	Abadiño
2.	014003	CEIP Zelaieta HLHI	Abadiño
3.	014021	CEIP Amoroto HLHI	Amoroto
4.	014025	CEIP Munitibar HLHI	Munitibar
5.	014096	CEIP Berriatua HLHI	Berriatua
6.	014097	CEIP Learreta-Markina HLHI	Berriz
7.	014230	CEIP Jose M. Ucelay HLHI	Busturia
8.	014235	CEIP Arratia HLHI	Artea
9.	014236	CEIP Zeanuri HLHI	Zeanuri
10.	014237	CEIP Zubialde HLHI	Zeberio
11.	014238	CEIP Dima-Ugarana HLHI	Dima
12.	014242	CEIP Landako Eskola HLHI	Zornotza
13.	014256	CEIP Manuela Zubizarreta HLHI	Etxebarria
14.	014258	CEIP Elorrio HLHI	Elorrio
15.	014260	CEIP San Lorenzo HLHI	Ermua
16.	014268	CEIP Aperribai HLHI	Galdakao
17.	014278	IES Elexalde BHI	Galdakao
18.	014280	CEIP Unkina HLHI	Galdakao
19.	014284	CEIP Montorre HLHI	Gautegiz Arteaga
20.	014308	CEIP Allende Salazar HLHI	Gernika
21.	014320	IES Gernika BHI	Gernika
22.	014324	CEIP Ispaster HLHI	Ispaster
23.	014341	CPI Juan B. Eguzkitza Meabe IPI	Lemoa
24.	014350	CEIP Learreta-Markina HLHI	Mallabia
25.	014352	CEIP Bekobenta HLHI	Markina
26.	014356	CEIP Urretxindorra HLHI	Muxika
27.	014361	CEIP Mundaka HLHI	Mundaka
28.	014369	CEIP Urregarai HLHI	Aulesti
29.	014372	CEIP Otxandio HLHI	Otxandio
30.	014378	CEIP Zaldupe HLHI	Ondarroa
31.	014382	CEIP Orozko Harana HLHI	Orozko
32.	014452	CEIP Atxondo HLHI	Atxondo
33.	014454	CEIP Areatza HLHI	Areatza
34.	014455	CEIP Ignacio Zubizarreta HLHI	Igorre
35.	014456	IES Arratia BHI	Igorre
36.	014457	CEIP Zaldibar HLHI	Zaldibar
37.	014520	CEIP Anaitasuna Ikastola HLHI	Ermua



38.	014920	CEIP Amorebieta-Larrea HLHI	Zornotza
39.	014923	CEIP Bermeo-San Francisco HLHI	Bermeo
40.	014925	CEIP Lekeitio HLHI	Lekeitio
41.	014938	CEIP Maiztegi HLHI	Iurreta
42.	015020	CEIP Barrutia HLHI	Arratzu
43.	015021	IES Barrutialde BHI	Arratzu
44.	015053	CEIP Gandasegi HLHI	Galdakao
45.	015071	IES Abadiño BHI	Abadiño
46.	015073	IES Berriz BHI	Berriz
47.	015082	IES Elorrio BHI	Elorrio
48.	015088	IES Bengoetxe BHI	Galdakao
49.	015090	IES Juan Orobiogoitia BHI	Iurreta
50.	015091	IES Markina BHI	Markina
51.	015100	CEIP Ongarai HLHI	Ermua
52.	015101	CEIP Urreta HLHI	Galdakao
53.	015106	IES I. Arozena-Barrueta-tar Benito BHI	Bermeo
54.	015307	IES Fray Juan De Zumarraga-Durango BHI	Durango
55.	015342	CEIP Zabalarra HLHI	Durango
56.	015623	IES Ondarroa BHI	Ondarroa
57.	015624	IES Lekeitio BHI	Lekeitio
58.	015627	IES Urritxe BHI	Zornotza
59.	015765	CEIP Haizeder HLHI	Ea
60.	015779	IES Ermua BHI	Ermua

[↑Aurkibidea](#)
[↑Eranskinak](#)



6. Donostia-Irungo eraginguneko ikastetxeak

Eraginguneko arduraduna: Aitziber López de Sabando Troncoso, a.lopezdesabando@berritzeguneak.eus,
688643910

Zk.	KODEA	IKASTETXEA	UDALERRIA
1.	012071	IES Talaia BHI	Hondarribia
2.	012102	CEIP Elatzeta HLHI	Irun
3.	012110	CEIP Toki-Alai HLHI	Irun
4.	012140	CEIP Elizalde HLHI	Oiartzun
5.	012150	CPI Karmengo Ama-Virgen Del Carmen IPI	Pasaia
6.	012159	CEIP Cristobal Gamon HLHI	Errenteria
7.	012173	IES Koldo Mitxelena BHI	Errenteria
8.	012184	CEIP Amara-Berri HLHI	Donostia
9.	012185	CEIP Mendiola HLHI	Donostia
10.	012186	CEIP Katalin Erauso HLHI	Donostia
11.	012188	CEIP Herrera HLHI	Donostia
12.	012201	CEIP Altza - S. J. C. HLHI	Donostia
13.	012202	CEIP Zuhaizti HLHI	Donostia
14.	012214	CEIP Igeldo HLHI	Donostia
15.	012219	CEIP Zubietza HLHI	Donostia
16.	012224	IES Altza BHI	Donostia
17.	012225	IES Bideberri BHI	Donostia
18.	012338	CEIP Txingudi-Irungo Ikastola HLHI	Irun
19.	012358	CEIP Aitor Ikastola HLHI	Donostia
20.	012359	CEIP Amassorrain Ikastola HLHI	Donostia
21.	012366	CEIP Ikas-Bide Ikastola HLHI	Donostia
22.	012367	CEIP Intxaurren Ikastola HLHI	Donostia
23.	012368	CEIP Jakintza Ikastola HLHI	Donostia
24.	012371	CEIP Sta. Maria-Orixe Ikastola HLHI	Donostia
25.	012905	CEIP Koldo Mitxelena HLHI	Errenteria
26.	012958	IES Lauaizeta Ikastola BHI	Donostia
27.	012960	IES Arantzazuko Ama BHI	Donostia
28.	012962	IES Lezo BHI	Lezo
29.	012963	IES Elizalde BHI	Oiartzun
30.	012964	IES Bizarain BHI	Errenteria
31.	012965	IES Cristobal Gamon BHI	Errenteria
32.	012966	IES Toki Alai BHI	Irun
33.	012967	IES Hirubide BHI	Irun
34.	012968	IES Txingudi BHI	Irun
35.	012969	IES Eguzkitza BHI	Irun
36.	012976	CEIP Talaia HLHI	Hondarribia



37.	012977	CEIP Leka Enea-Anaka HLHI	Irun
38.	012979	CEIP Lezo HLHI	Lezo
39.	012982	IES Xabier Zubiri-Manteo BHI	Donostia
40.	013002	CEIP Belaskoenea HLHI	Irun
41.	013013	IES Pio Baroja BHI	Irun
42.	013025	IES Usandizaga-Peñaflorida-Amara BHI	Donostia
43.	013079	CEIP Intxaurreondo Hegoa HLHI	Donostia
44.	013083	CEIP Ibai Ikastola HLHI	Donostia
45.	013085	IES Antigua-Luberri BHI	Donostia
46.	013138	CEIP Dunboa HLHI	Irun
47.	013253	CEIP Harri Berri - Oleta HLHI	Donostia
48.	013372	CEIP Eguzkitza HLHI	Irun
49.	013451	CEIP Aiete HLHI	Donostia
50.	013520	CEIP Arantzazuko Ama Ikastola HLHI	Donostia
51.	013521	CEIP Astigarragako Herri Eskola HLHI	Astigarraga
52.	013522	CEIP Bizarain Ikastola HLHI	Errenteria

[↑Aurkibidea](#)
[↑Eranskinak](#)



7. Deba-Urolako eraginguneko ikastetxeak

Eraginguneko arduraduna: Ainhoa Basurco Arrizabalaga, ai.basurco@berritzeguneak.eus, 688821675

Zk.	KODEA	IKASTETXEA	UDALERRIA
1.	012002	CEIP Basakaitz HLHI	Aizarnazabal
2.	012013	CEIP Antzuola HLHI	Antzuola
3.	012015	CEIP Kurtzebarri HLHI	Aretxabaleta
4.	012019	CEIP Lardizabal HLHI	Aia
5.	012037	CEIP Zestoa HLHI	Zestoa
6.	012038	CEIP Arroa HLHI	Zestoa
7.	012039	CEIP B. Aizarna HLHI	Zestoa
8.	012046	CEIP Amaña HLHI	Eibar
9.	012049	CEIP San Andres HLHI	Eibar
10.	012050	CEIP Urkizu HLHI	Eibar
11.	012051	CEIP Arrateko Andra Mari HLHI	Eibar
12.	012064	CEIP Elgeta HLHI	Elgeta
13.	012065	CEIP Luis Ezeiza HLHI	Eskoriatza
14.	012073	CEIP Iturzaeta HLHI	Getaria
15.	012132	IES Mutriku BHI	Mutriku
16.	012134	CEIP Urgain Eskola HLHI	Oñati
17.	012137	CPI Juan Zaragueta Herri Eskola IPI	Orio
18.	012153	CEIP San Martin HLHI	Errezil
19.	012265	CEIP San Martin Agirre HLHI	Bergara
20.	012273	CEIP Angiozar HLHI	Bergara
21.	012288	CEIP Orokieta HLHI	Zarautz
22.	012292	IES Lizardi BHI	Zarautz
23.	012298	IES Zumaia BHI	Zumaia
24.	012299	CEIP Oikia HLHI	Zumaia
25.	012319	CEIP Azkoitiko Ikastola-Xabier Munibe HLHI	Azkoitia
26.	012320	CEIP Azpeitiko Ikastola-Karmelo Etxegarai HLHI	Azpeitia
27.	012327	CEIP J.A. Mogel Ikastola HLHI	Eibar
28.	012348	CEIP Goizeko Izarra Ikastola HLHI	Mutriku
29.	012389	CEIP Mendaro Ikastola HLHI	Mendaro
30.	012777	CEIP Elgoibar HLHI	Elgoibar
31.	012945	IES Kurtzebarri BHI	Aretxabaleta
32.	012946	IES Soraluze BHI	Soraluze
33.	012947	IES Mendata BHI	Deba
34.	012970	CEIP Plaentxi HLHI	Soraluze
35.	012971	CEIP Luzaro HLHI	Deba
36.	012972	CEIP Zumaia HLHI	Zumaia
37.	012981	IES Ipintza BHI	Bergara



38.	012985	IES Azkoitia BHI	Azkoitia
39.	013006	IES Arrasate BHI	Arrasate
40.	013015	IES Oñati BHI	Oñati
41.	013169	CEIP Arrasate Herri Eskola HLHI	Arrasate
42.	013431	IES Elgoibar BHI	Elgoibar
43.	013555	IES Urola Ikastola BHI	Azpeitia
44.	013597	IES Eibar BHI	Eibar

[↑Aurkibidea](#)[↑Eranskinak](#)



8. Buruntzaldea-Goierriko eraginguneko ikastetxeak

Eraginguneko arduraduna: Maider Esnaola Otamendi, m.esnaola.o@berritzeguneak.eus, 688667369

Zk.	KODEA	IKASTETXEA	UDALERRIA
1.	012001	CEIP Aduna HLHI	Aduna
2.	012003	CEIP Albiztur HLHI	Albiztur
3.	012004	CEIP Alegiako Herri Eskola HLHI	Alegia
4.	012005	CEIP Alkiza HLHI	Alkiza
5.	012007	CEIP Zumadi HLHI	Amezketza
6.	012017	CEIP Pello Errota HLHI	Asteasu
7.	012018	CEIP Joxemiel Barandiaran Eskola HLHI	Ataun
8.	012027	CEIP Murumendi HLHI	Beasain
9.	012031	CEIP J.A. Muñagorri HLHI	Berastegi
10.	012032	CEIP Berrobiko Eskola HLHI	Berrobi
11.	012033	CEIP Txinkorta HLHI	Bidania-Goiatz
12.	012034	CEIP Aitxuri HLHI	Zegama
13.	012035	CEIP Zerain HLHI	Zerain
14.	012041	CEIP Pedro M. Otaño HLHI	Zizurkil
15.	012042	CEIP San Millan HLHI	Zizurkil
16.	012072	CEIP Balentzategi HLHI	Gabiria
17.	012086	CEIP Txirrita HLHI	Hernani
18.	012089	CEIP Aita Iparragirre HLHI	Idiazabal
19.	012090	CEIP Ikaztegieta HLHI	Ikaztegieta
20.	012113	CEIP Urkipe Herri Eskola HLHI	Itsasondo
21.	012115	CEIP Domingo Agirre HLHI	Legazpi
22.	012117	IES Olazabal BHI	Legazpi
23.	012119	CEIP Ugara HLHI	Légorreta
24.	012123	CEIP Lizartzako Herri Eskola HLHI	Lizartza
25.	012133	CEIP Olaberria HLHI	Olaberria
26.	012139	CEIP San Andres HLHI	Ormaiztegi
27.	012242	CEIP Laiotz HLHI	Segura
28.	012244	CEIP Felix Samaniego HLHI	Tolosa
29.	012261	CEIP Aginaga HLHI	Usurbil
30.	012277	CEIP Fleming Herri Eskola HLHI	Villabona
31.	012279	CEIP Fray A. Urdaneta HLHI	Ordizia
32.	012282	IES Oianguren BHI	Ordizia
33.	012284	CEIP Gain-Zuri HLHI	Urretxu
34.	012286	IES J.M. Iparragirre BHI	Urretxu
35.	012287	CEIP Lardizabal HLHI	Zaldibia
36.	012334	CEIP Langile Ikastola HLHI	Hernani



37.	012653	CEIP Urumea Ikastola HLHI	Hernani
38.	012654	CEIP Elizatxo Ikastola HLHI	Hernani
39.	012740	IES Leizaran BHI	Andoain
40.	012779	CEIP Ondarreta HLHI	Andoain
41.	012951	IES Aralar BHI	Alegia
42.	012952	IES Erniobea BHI	Villabona
43.	012957	IES Egape Ikastola BHI	Urnieta
44.	012973	CEIP P. Garaikoetxea-Landaberri Ik. HLHI	Lasarte-Oria
45.	012974	CEIP Sasoeta-Zumaburu HLHI	Lasarte-Oria
46.	012975	CEIP Egape Ikastola HLHI	Urnieta
47.	012980	IES Orixe BHI	Tolosa
48.	013012	IES Hernani BHI	Hernani
49.	013026	CEIP Alkartasuna Lizeoa HLHI	Beasain
50.	013078	CEIP Imaz Bertsolaria HLHI	Altzo
51.	013254	CEIP Txalburu HLHI	Abaltzisketa
52.	013461	IES Beasain BHI	Beasain
53.	013527	CEIP Ezkio-Itsaso Herri Eskola HLHI	Ezkio-Itsaso
54.	013554	IES Oriarte BHI	Lasarte-Oria
55.	013667	CEIP Larraul Herri Eskola HLHI	Asteasu

[↑Aurkibidea](#)

[↑Eranskinak](#)



II. eranskina. Ikastetxeko berrikuntza-arduradunari edo -arduradunei ordu-kreditua esleitzeko irizpideak

1. Irizpide orokor gisa, **ikastetxe bakoitzari berrikuntzarako esleitutako ordu-kreditua ikastetxeko ahalik eta irakasle gutxien artean banatuko da**, koordinazioa eta espezializazioa errazteko.

2. Irakasle horiek bi motatakoak izango dira:

➤ **Hezkuntza Berrikuntzaren irakasle arduradunak (BeA figura):**

o Ikastetxe bakoitzak, gutxienez, Hezkuntza Berrikuntza-arduradun bat izendatuko du (BeA figura), eta, gehienez, arduradun bat hezkuntza-etapa bakoitzeko.

o BeA izendatutako pertsona edo pertsona, gutxienez, ikastetxeari orotara esleitutako ordu-kredituaren lanaldi erdia esleitu beharko zaie. Kasu horietan, zuzeneko irakaskuntza-dedikazioko orduekin osatu ahal izango da lanaldia, betiere dedikazio horrek BeA figurari esleitutako funtzioak betetzea eragozten ez badu, eta zuzeneko dedikazio hori ikasgelan berrikuntza-proiektu bat ezartzeari lotuta badago (adibidez, eremuka lana ezartzeko...).

o 0,5 lanaldiko ordu-kreditua duten ikastetxeen kasuan, lanaldi erdi hori pertsona bakar bati esleitzea gomendatzen da. Pertsona hori ikastetxeko BeA figura izango da. Kasu horretan, ikasketaburutzak funtzio horiek bere gain hartzea gomendatzen da.

➤ **Berrikuntzarako ordu-kredituaren zati bat esleituta duten irakasleak (BODI irakasleak).**

o Zuzendaritza-taldearen erabakia izango da, dituen beharren eta ordu-kredituaren arabera, BODI irakaslea izatea edo ez izatea. Beraz, zuzendaritza-taldeak ordu-kredituaren zati bat esleitu ahal izango die, haien profilagatik, jarraibide hauetan adierazitako zenbat funtzio eta/edo zeregin garatzeko egokienak diren irakasleei.

o **Edozelan ere, ikastetxeko BeA figura edo figuren ardura izango da BODI irakasleen lana koordinatzea.**

4. Haur Hezkuntza edo Lehen Hezkuntza eskaintzen duten ikastetxeen kasuan, **lanaldi osoa izango da BeA figurari asteko zuzeneko 23 irakastorduko dedikazioa** esleitzea, eta lanaldi erdiko esleipenen kasuan, 12 ordu esleitzea.

5. Bigarren Hezkuntza eskaintzen duten ikastetxeen kasuan, **lanaldi osoa izango da BeA figurari asteko zuzeneko 18 irakastorduko dedikazioa** esleitzea. Esleipen txikiagotarako, kalkulua 18 ordu horietan oinarrituko da.

[↑Aurkibidea](#)

[↑Eranskinak](#)



III. eranskina. BeA figurentzako formakuntza- eta laguntza-programa espezifikoa: *BeAk Trebatzen*

Programaren ezaugarri orokorrak

1. Programa honen formakuntza-jarduerak, ezaugarrien arabera, mota hauetan sailkatzen dira: ikastaroak, mintegiak, monografikoak eta jardunaldiak. Era berean, formakuntza-jardueren modalitateak hauek izan daitezke: *aurrez aurrekoa*, *erdipresentzialak* eta *onlinekoak*.
2. Bestalde, formakuntza-jarduera horietako batzuk derrigorrezkoak izango dira BeA figurentzat, eta beste batzuk hautazkoak, BeA figura bakoitzak bere ikastetxearen beharretara ondoen egokitzen den formakuntza-ibilbidea egin dezan.
3. Formakuntza-jarduerak, hala badagokio, barne hartuko dituzte **aplikazio praktikoak**.
4. Era berean, formakuntza-jarduerak mekanismoak eta ebaluazio-adierazleak izango dituzte, *BeAk Trebatzen* programaren jarraipena eta balorazioa egiteko. Ebaluazioaren helburua izango da programak ikastetxeetan izandako isla baloratzea eta hobekuntza-proposamenak diseinatzea.
5. Programak 100 orduko iraupena du; BeA figura berriek 45 ordu derrigorrezko formakuntza izango dute; eskarmentudunek, 30 ordukoa. [Eranskin honen amaieran, BeAk Trebatzen programako derrigorrezko formakuntza-jarduerak jasotzen dira](#). Gainerako orduak, 100 ordu zenbatu arte, aukerako formakuntza-jarduerekin osatu ahal izango dira.
6. Gehienez ere ondoz ondoko bi ikasturtetan banatuta dauden formakuntza-jarduerak metatuz egin ahal izango da programa.
7. Formakuntza-jarduerak behar bezala garatzeko, [EAE / Lineako ikastaroen plataforma / Hezkuntza Saila / Moodlegunea](#) plataformatik kudeatuko dira. Hartara, behar bezala jasoko dira BeA figuren parte-hartzea eta aprobetxamendua.
8. Berritzegune Nagusiko Irakaskuntzako Metodologiaren eta Konpetentzien esparruari eta Curriculumara Garatzeko esparruari dagokie programa koordinatzea eta gainbegiratzea. Formakuntza-jarduerak Berritzegune Nagusiko esparru guztiekin lankidetzan garatuko dira.
9. 2024-2025 ikasturterako formakuntza-jardueren zerrenda ikastetxeen eta BeA figuren eskura egongo da [Curriculumgunea](#) webgunean. Bertan, formakuntza-jarduera bakoitzak deskribapen-fitxa izango du.
10. Programa hau kudeatzeaz arduratzen den Berritzegune Nagusiko idazkaritzak ofizios inskribatuko ditu BeA figurak derrigorrezko formakuntza-jardueretan. Hautazko formakuntza-jardueren kasuan, BeA figurak berak emango du izena, jarduera bakoitzerako ezartzen diren prozeduren arabera.
11. **BeA figurek konpromisoa hartzen dute derrigorrezko formakuntza-jarduera guztietara joateko**, bai eta izena ematen duten aukerako jardueretara ere. Inskribatutako BeA bakoitzak formakuntza-jardueretara bertaratu dela baieztatu beharko du, horretarako erabakitzen den prozeduraren arabera. Era berean, formakuntza-jardueraren ebaluazio-inkesta bete beharko dute, hura amaitutakoan.



12. Halaber, BeA figurek konpromisoa eta erantzukizuna hartzen dute eskuratutako ezagutzak praktikan jartzeko, irakasle-taldeari transmititzeko eta ikastetxeko eguneroko lanean integratzeko.

13. Formakuntza-jardueretan parte hartzen duten BeA figurek, gutxienez, jarduera bakoitzerako orduen % 80ra joan beharko dute (modalitate presentzialekoak, mistoak edo online sinkronoak direnean), jardueraren zeregin guztiak egin beharko dituzte, proiektua, txostena edo memoria entregatu beharko dute eta balorazio-fitxa bete beharko dute, hala ezarrita badago. Formakuntza-jardueretan parte hartzen duen pertsona gaitzat hartzen bada, Hezkuntza Saileko irakasleen berrikuntza- eta formakuntza-jardueren datu-basean erregistratuko da. Gai diren irakasleek Heziguea atariko formakuntza-atalean bistaratu eta inprimatu ahal izango dute ziurtagiria. Gaitzat jotzen ez diren parte-hartzaileek ez dute lortuko formakuntza-jarduera horren ziurtagiria.

***BeAk Trebatzen* programaren derrigorrezko formakuntza-jarduerak.**

Bi dira derrigorrezko formakuntza-jarduerak:

1. Hasierako formakuntza-ikastaroa (23-24 ikasturteko *Murgiltze Astearen* parekoa)

Ikastaro hau iraileko bigarren hamabostaldian egingo da.

Ikastaroak bi zati izango ditu:

- **Lehen zatia. BeA hasiberriei zuzendua.** Zati hori hiru egunetan egingo da, goizez. BeA hasiberrien kopuruaren arabera, ikastaro hauek eraginguneka antolatu ahal izango dira, edo, hala badagokio, eraginguneak elkartuz.

AURREIKUSITAKO ANTOLAKETA ETA DATAK: lurraldeka, Irailak 24-25-26

- **Bigarren zatia. BeA figura guztiei zuzendua** (esperientziadunak eta hasiberriak). Zati hau bi egunetan garatuko da, goizeko jardunaldian eta eraginguneka.

AURREIKUSITAKO ANTOLAKETA ETA DATAK:

- Araba eta Gipuzkoako eraginguneak: irailak 30 eta urriak 1
- Bizkaiko eraginguneak: urriak 2 eta urriak 3

Formakuntza-jarduera hori 25 ordukoa izango da BeA berrientzat, eta 10 ordukoa esperientziadunentzat.

2. BeA figuren mintegiak

Aurreikuspenen arabera, **bost** mintegi egingo dira, eraginguneka antolatuta, goizez, eta bakoitzak gehienez lau orduko iraupena izango du.

AURREIKUSITAKO ANTOLAKETA ETA DATAK:

- Arabako eta Gipuzkoako eraginguneak (astelehenak): azaroak 18, urtarrilak 13, otsailak 17, martxoak 17, maiatzak 21 (asteazkena, denak batera)
- Bizkaiko eraginguneak (asteazkenak): azaroak 20, urtarrilak 15, otsailak 19, martxoak 19, maiatzak 21 (denak batera)

Formakuntza-jarduera hori 20 orduz ziurtatuko da.



BeAk Trebatzen programa gainditu izanaren akreditazioa

1. *BeAk Trebatzen* programa gainditu izanaren egiaztagiria lortzeko, beharrezkoa izango da parte-hartzaileek:

- derrigorrezko formakuntza-jarduerak burutzea eta ebaluazio positiboarekin gainditzea.
- formakuntza-ibilbideari dagozkion orduak osatzea, pertsona bakoitzak aukeratutako hautazko jarduerak eginez eta ebaluazio positiboarekin gaindituz.

2. BeAk Trebatzen programa akreditatzeko baldintzak betetzen dituzten pertsonak dagokion egiaztagiria eskatu beharko diote idatziz Hezkuntza Saileko Ikaskuntza eta Hezkuntza Berrikuntza Zuzendaritzari, dagokion ikasturteko ekainaren 1etik ekainaren 15era bitarteko epean, horretarako ezartzen den prozeduraren arabera.

3. Ikaskuntza eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritzak, eskabideak aztertu ondoren, dagozkion egiaztagiriak emango ditu dagokion ikasturteko ekainaren 30a baino lehen. Maiatzaren 31ren ondoren egindako formakuntza-jarduerak hurrengo ikasturteko akreditaziorako zenbatuko dira.

4. Ziurtapenaren aurrealdean parte-hartzailearen izen-abizenak, nortasun-agiria eta akreditazio-data agertuko dira. Atzealdean, formakuntza-programa espezifikoa jasoko da.

5. 2023-2024 ikasturtean BeA figura izan ziren eta *BeAk Trebatzen* programa egiaztatzea lortu ez zuten pertsonak akreditazioa eskatu ahal izango dute, baldin eta 2024-2025 ikasturtean BeA figura izaten jarraitzen badute. Gainera, 2023-2024 ikasturteko *Murgiltze Astea* edo, hala badagokio, 2024-2025 ikasturteko *Hasierakoformakuntza ikastaroa* formakuntza-jardueraren ziurtagiria izan behar dute, eta guztira 100 formakuntza-ordu bete behar dituzte 2023-2024 ikasturtetik 2024-2025 ikasturtera bitartean.

BeAk Trebatzen programaren komunikazio-estrategia

1. **BeAk Trebatzen programa** diseinatzea, ezartzea eta ebaluatzea Hezkuntza Sailaren ardura da, eta, horretarako, eragile guztien eta BeA figuren konpromisoa behar du. Formakuntza-programa honen arrakasta haien guztien inplikazio-mailak baldintzatzen duenez, funtsezkoa da programan jasotako helburu eta jardueren eta horien garapenari buruzko informazio egokia izatea. Informakuntza trukatzeko bideak ere izan behar dira, asmoak, erronkak eta izaten ari diren aurrerapenak ezagutarazteko.

Illo horretatik, **programaren komunikazio-estrategia** gauzatzean, hiru une garrantzitsu izango dira. Horietan, zenbait jardura aurreikusten dira:

- Onartze-fasea: jarraibide hauek jakinaraztea. Jarduerak:
 - o Jarraibideak zuzendaritza-taldeei aurkeztu.
 - o Jarraibideak Sailaren webgunean eta Curriculumgunean argitaratu.
 - o Jarraibideak ikastetxeetako klaustroetan zabaldu, dagozkion zuzendaritza-taldeak buru direla.
- Inplementazio-fasea: komunikazioa. Jarduerak:



- Ikasturtean zehar eskaintzen diren formakuntza-jardueren berri egokiro eta behar den maiztasunarekin eman, formakuntza-eskaintza osatu eta aberasteko.
- Aldian behin, inplementazioaren emaitza esanguratsuenen berri eman.
- Azken fasea: programaren inplementazio-maila eta eragina jakinaraztea. Jarduerak:
 - Lortutako emaitzei buruzko txostena egitea eta zabaltzea.

BeA figurek *BeAk Trebatzen* formakuntza-programan parte hartzea sustatzeko eta errazteko neurriak.

1. Ikastetxeetako zuzendaritzek sustatu eta erraztu egingo dute BeA figurek formakuntza-jardueretan parte hartzea. Horretarako, jarduera horien deialdia jakinaraziko dute. Halaber, ikastetxean eskuragarri dauden baliabideekin beharrezkoak diren antolaketa-neurriak jarriko dituzte abian, BeAk formakuntza-jardueretan parte hartzearen ondorioz uki daitezkeen ikasleen hezkuntza-arreta egokia bermatzeko.

[↑Aurkibidea](#)

[↑Eranskinak](#)



IV. eranskina. Berrikuntzarako ordu-kreditua eta BeA figurak esleitzeko proposamena egiteko prozedura

Zuzendariak —hala badagokio, 2024-2025 ikasturterako ikastetxeko zuzendari izendatuko den pertsonaren oniritziarekin— berrikuntzarako ordu-kreditua esleitzeko eta BeA figura edo figurak izendatzeko proposamena egingo du.

Proposamena modu telematikoan egingo da **Herri Ikastetxeak** atarian, [BeA figurak](#) izeneko galdetegiaren bitartez.

Galdeketa hau 2024ko maiatzaren 22tik aurrera gaituko da eta ikastetxeek 2024ko ekainaren 15era arteko epea izango dute proposamenak egiteko.

Proposamenak horretarako ezarritako batzordeak aztertuko ditu, egin ahala. Ikastetxeak bere proposamenaren egoera ikusi ahal izango du Herri ikastetxeak atarian. Egoerak lau hauek dira:

- **Tramitatzen:** baliozkotze-batzordea proposamena aztertzen ari da.
- **Hutsak zuzentzea:** baliozkotze-batzordeak, proposamenean zuzentzeko atalak hautemanenez gero, bide honetatik jakinaraziko dio zuzendariari aldatu beharrekoa.
- **Onartua:** proposamena onartuta dago.
- **Ukatua.** Proposamena ez da onartzen. Kasu honetan, dagokion lurralde historikoko Hezkuntza Ordezkariek pertsonarik egokiena edo, hala badagokio, egokienak izendatuko ditu, Hezkuntza Ikuskaritzaren txostenaren ondoren.

Baliozkotze-batzordeak proposamen guztiak ebatziko ditu 2024ko ekainaren 20a baino lehen.

Galdetegia hau izango da.

BERRIKUNTZARAKO ORDU-KREDITUA ESLEITZEKO ETA BeA FIGURAK IZENDATZEKO PROPOSAMENA

IKASTETXEAREN DATU OROKORRAK:

Ikastetxea * (aplikazioak automatikoki kargatzen ditu ikastetxeari dagozkion datuak)

Zuzendariaren NANA eta izen-abizenak (aplikazioak automatikoki kargatzen ditu datua horiek)

Harremanetarako telefonoa: (gehitu datua)

2024-2025 ikasturterako zuzendaria aldatzen bada

Oniritzia

- ☐ 2024-2025 ikasturterako ikastetxeko zuzendari izendatuko den pertsonaren oniritzia.

Zuzendari berriaren NANA: (gehitu datua)

Izen-deiturak: (gehitu datua)



BeA figura edo figuren PROPOSAMENA

1. BeA figuraren PROPOSAMENA (DERRIGORREZKO BETETZEA)

Lehenengo BeA figura izateko proposatutako pertsonaren NANA: (gehitu datua).

Izen-deiturak: (gehitu datua)

Edukiak	- STEM funtsezko kompetentziaren deskriptoreak - STEM deskriptoreen alderdi zientifikoak - Gelako kompetentzia-atazen adibideak ikasgai zientifikoetan - Kanpo ebaluazioen kompetentzia zientifikoaren dimentsioak - STEM deskriptoreak eta dimentsioen arteko erlazioak
Hartzaile potentziala	LHko tutoreentzat txanda bakoitzean, 50, guztira 150.
Formatua	On-line tutorizatua
Antolaketa	Hiru ikastaro on-line
Ordu kopurua	1. Fase. 10 orduko prestakuntza trinkoa edukiak garatzeko. 2. Fasea. 5 ordu landutakoaren aplikazioa gelan egiteko. Guztira: 15 ordu
Kronograma	Zehazteke
Ikastetxearen konpromisoak	Gelako aplikazioa egitea eta ebaluazioa gainditzea

[↑Taula: bigarren begirada](#)

4. STEM funtsezko kompetentziaren alderdi zientifikoak (bigarren hezkuntza)

 Helburuak	1. STEM funtsezko kompetentziaren deskriptoreak aztertzea, kompetentziaren alderdi zientifikoak zehazteko. 2. ikasgelako kompetentzia-atazak lantzea Ikasgai zientifikoetako curriculum-elementuekin konektatzeko edota lotzeko. 3, Kanpo ebaluazioetarako (gure ebaluazio diagnostikoa, PISA, ...) kompetentzia zientifikoa eta curriculumaren STEM kompetentzien arteko zehaztapenak alderatzea haien arteko koherentziaren ebidentziak erakusteko.
Edukiak	- STEM funtsezko kompetentziaren deskriptoreak - STEM deskriptoreen alderdi zientifikoak



	- Gelako konpetentzia-atazen adibideak ikasgai zientifikoetan - Kanpo ebaluazioen konpetentzia zientifikoaren dimentsioak - STEM deskriptoreak eta dimentsioen arteko erlazioak
Hartzaile potentziala	BH zientzietako irakasleak , txanda bakoitzean, 50, guztira 150.
Formatua:	On-line tutorizatua
Antolaketa:	Hiru ikastaro on-line
Ordu kopurua:	1. Fase. 10 orduko prestakuntza trinkoa edukiak garatzeko. 2. Fasea. 5 ordu landutakoaren aplikazioa gelan egiteko. Guztira, 15 ordu
Kronograma	zehazteke.
Ikastetxearen konpromisoak	Gelako aplikazioa egitea eta ebaluazioa gaınditzea

[↑Taula: bigarren begirada](#)

5. Programazio didaktikoak eta ikas-egoerak

Helburuak	- Ikasturte hasieran diseinatu behar diren programazio didaktikoen egitura ezagutzea. - Programazio didaktikoaren atalak eta hauek betetzeko gakoak zeintzuk diren ezagutzea. - Programazio didaktiko ereduak ezagutzera ematea. - Ikastetxerako programazio didaktikoak diseinatzea, bakoitzaren testuinguruari egokituta. - Ikasturtean zehar diseinatu behar diren ikas egoeren egitura eta atalak ezagutzea. - Ikas egoeren diseinurako gakoak ezagutzea. - Ikas egoerak diseinatzeko gaitasuna garatzea.
Edukiak	PROGRAMAZIO DIDAKTIKOAK: - Egitura - Atalak eta hauek betetzeko gakoak. - Programazio didaktiko ereduak aztertzen. IKAS EGOERAK: - Egitura - Atalak eta hauek betetzeko gakoak. - Konpetentzia atazak. - Elementu curricularrak eta haien arteko loturak. - Gako metodologikoak.
Mota	NOOC
Formatua	On-line
Ordu kopurua	5
Ikastetxearen konpromisoak	Ikastetxeari egitea egokitzen zaizkion programazio didaktikoak sortzea eta hala badagokio beste ikastetxe batzuekin elkarbanatzea, baita ikas-egoerak ere.

[↑Taula: bigarren begirada](#)

6. Ebaluazio hezigarria

 Helburuak	- Lan erreminta garatzea, hau da, portfolioa garatzea - Ebaluazioaren helburu eta xedeen inguruan hausnarketa egitea. - Konpetentzia ebaluazioaren ikuspegia zabaltzea. - Ebaluazio mapan, norberaren indarguneak eta hobetu beharrak aztertu eta definitzea. - Ebaluazio mota desberdinak ezagutzea. - Ebaluazio erremintak aplikatzen ikastea. - Benetazko ebaluazioa burutzeko indar kulturalak ezagutzea eta ikaskuntza eta ebaluazio prozesuetan beharrezkoak diren egiturak erabiltzen ikastea. - Konpetentzia atazak diseinatzerakoan, programazio, metodologia eta ebaluazio kontzeptuak definitzea. - Teknologiaren erabilera estrategiak ezagutzea, atazen proposamenak aberasteko. - Autoerregulazio prozesuetan hazkunde mentalitatea aplikatzen ikastea.
Edukiak	1.- Metakognizio portfolioaren erabilera. 2.- Ebaluazioaren xedek eta funtzioak. 3.- Konpetentziak eta ebaluazioa. 4.- Ebaluazio motak. 5.- Ebaluazio erremintak. 6.- Benetazko ebaluazioa, 8 indar kulturalak. 7.- Programazioa, metodologia eta ebaluazioa, konpetentzia atazak. 8.- Teknologiaren erabilera eta ebaluazioa. 9.- Hazkunde mentalitatea eta autoerregulazio prozesuak.
Mota	MOOC
Formatua	semipresentziala
Antolaketa	Mintegia: Lurraldeka Ikastaroa: Ikastetxean.
Ordu kopurua	30
Kronograma	Berritzegune Nagusiak irailean trebatuko ditu ikastetxeetako irakasle arduradunak. Datak, zehazteke.
Ikastetxearen konpromisoak	Ebaluazio hezigarriaren inguruko erabakiak IHPan zehaztea. Ebaluazio prozesuaren diseinua burutzea eta inplementatzea.

[↑Taula: bigarren begirada](#)

7. Kodozentzia

 Helburuak	- Kodozentziaren oinarri teoriko eta kontzeptualak bereganatzea. - Kodozentziaren esku hartzean gako diren elementuak identifikatzea. - Kodozentziaren baitan, irakaslearen rola eta esku hartzearen inguruan hausnartzea. - Kodozentziaren baitan, ikaslearen rola eta esku hartzearen inguruan hausnartzea.
Edukiak	1.Kodozentziaren oinarriak.



	2.Kodozentziaren begiradatik ikaste eta irakaste prozesuak gauzatzeko irizpide pedagogikoak 3. Kodozentziaren diseinu eta ebaluaziorako estrategiak. 4. Kodozentziaren praktika onak ezagutzea
Mota	MOOC
Formatua	Semipresentziala
Antolaketa	Mintegia: Lurraldeka Ikastaroa: Ikastetxean.
Kronograma	Berritzegune Nagusiak urrian trebatuko ditu ikastetxeetako irakasle arduradunak. Datak, zehazteke.
Ikastetxearen konpromisoak	Gelan kodozentzia praktika sustatzea. Kodozentziarako diseinuak zehaztu eta gelaratu. Praktika komunitate profesionalean ere landuko da.

[↑Taula: bigarren begirada](#)

8. Teknika kooperatiboak

 Helburuak	- Ikaskuntza kooperatiborako metodologia zertan datzan ezagutzea. - Ikaskuntza kooperatiboaren metodologiaren abantailak ezagutzea. Aprendizai kooperatiboa eta beste metodologiaren uztartzea. - Ikaskuntza kooperatiboa eta eskola gatazkak. - Ikaskuntza kooperatiboa sustatzeko teknikak ezagutzea. - Ikaskuntza kooperatiboaren ebaluazioa nola egiten den ezagutzea.
Edukiak	1.- Ikaskuntza kooperatiboa, zer da? 2.-Ikaskuntza kooperatiboa, hezkuntza gatazken aurrean konponbiderako estrategia gisa. 3.- Ikaskuntza kooperatiboa, teknikak eta estrategiak. 4. Ikaskuntza kooperatiboan, nola ebaluatu.
Mota	MOOC
Formatua	Semipresentziala
Antolaketa	Mintegia: Lurraldeka Ikastaroa: Ikastetxean
Kronograma	Berritzegune Nagusiak urrian trebatuko ditu ikastetxeetako irakasle arduradunak. Datak, zehazteke.
Ikastetxearen konpromisoak	Ikaskuntza kooperatiboa gelan sustatzeko planifikazio bat burutuko da, gelaratuko da eta egindakoaren ebidentziak partekatuko dira.

[↑Taula: bigarren begirada](#)

9. Irakurketa Estrategia ikastetxeetara ([Euskal Hezkuntza Sistemarako Irakurketa Estrategia berria ezagutarazteko prestakuntza](#))

 Helburuak	Hezkuntza Sailaren Irakurketa Estrategia berriaren gako nagusiak ezagutzea. Bigarren Hezkuntzako jakintzagai guztietan irakurketa berariaz lantzearen garrantzia barneratzea, eta horretarako estrategiak eskuratzea. Ikasleengan irakurtzeko ohitura eta irakurzaletasuna sustatzeko estrategiak eta tresnak eskaintzea.
Edukiak	Euskal Hezkuntza Sistemarako Irakurketa Estrategia. Irakurketa konpetentzia. Irakurtzen ikasi: gako nagusiak. Ikasteko irakurri: gako nagusiak Irakurtzeko ohitura eta irakurzaletasuna: gako nagusiak. Hiru ardatzak lantzeko estrategiak. ITT tresna. Zer da? Elibrum: zer da?
Mota	Ubidea
Formatua	On-line
Antolaketa	Lurraldeka
Ordu kopurua	Ubidearen ikastetxeko arduraduna: 10 ordu. Irakasleak: 5 ordu.
Kronograma	Berritzegune Nagusiak irailean trebatuko ditu ikastetxeetako irakasle arduradunak. Datak, zehazteke. Ikastetxeetako irakasleek hilabete bateko epea izango dute ikastaroa egiteko. (zehazteke, baina urriaren 15etik azaroaren 15era izan liteke)
Ikastetxearen konpromisoak	Ikastetxeak irakasle arduradun bat izendatu behar du. Irakasle arduradunak on-line ikastaroa kudeatzeko eta zuzentzeko trebakuntza jaso behar du Berritzegune Nagusitik. Izena ematen duten ikastetxeetako irakasle guztiek egin behar dute ikastaroa.

[↑Taula: bigarren begirada](#)

10. Ikasteko irakurri (arlo, jakintzagai edo eremu guztietako testu akademikoen irakurketa lantzeko prestakuntza)

 Helburuak	-Arlo edo jakintzagai guztietako testu akademikoen ulermena lantzeko testuak aukeratu eta jarduerak sortzea. -Prestatutako arlo eta jakintzagai guztietako testuen irakurketaren plangintza egitea eta testu hauen irakurketa geletan lantzea.
Edukiak	-Irakurmena lantzeko prozesuak. -Irakurketa-estrategiak. -Arloetako testu akademikoen irakurketaren ezaugarriak. -Testu digitalen irakurketaren lanketa. -Irakurmena lantzeko jarduera mota anitzak. -Teknologia berriak irakurmenaren lanketan.



	-Testu eta jardueren behaketarako irizpideak. -Sortutako testuekin irakurketaren plangintza antolatzeke jarraibideak. -Inplementazioaren behaketarako irizpideak.
Mota	Ubidea:
Formatua:	online
Antolaketa	Mintegia: erkidegoa Ikastaroa: ikastetxeka
Ordu kopurua	Ubidearen ikastetxeko arduraduna: 15 ordu Irakasleak: 10 ordu
Kronograma	Arduradunentzako mintegia: abendua-maiatza (4 saio online). Datak zehaztu gabe. Irakasleentzako ikastaroa: urtarrila-martxo (3 modulu) Inplementazioa ikasgelan: apirila-maiatza.
Ikastetxearen konpromisoak	Ubidearen ikastetxeko arduradunek irakasleek prestatu beharko dituzten testu eta jarduerak behatzea eta hobekuntzak proposatzea. -Irakasleek arlo edo jakintzagai bakoitzeko testu bat jarduerekin prestatzea. -Irakasleek prestatutako testu eta jarduerak geletan aplikatzea. - Ubidearen ikastetxeko arduradunek jardueren inplementazioa bideratzea, eta horien balorazioa egitea.

[↑Taula: bigarren begirada](#)

11. Hizkuntzak arlo guztietan: trataera integrala

 Helburuak	Hizkuntzen tratamendu integralean sakontzea eta irakas-praktikak hobetzen laguntzea, metodologia aktibo eta berritzaileak eskainiz. Hizkuntza eta arloen arteko ikas-egoera bat era integralean sortzea eta ikasgelan aplikatzea.
Edukiak	Hizkuntza eta jakintzagai/arloan inguruko ekintza didaktiko-metodologikoak, ikuspuntu integral batetik, praktikan jartzen dituzten proiektuak diseinatzeko prozedurari eta inplementazioari lotutako formakuntza da. Ildo honetatik; garatuko diren jakintzei lotutako gaiak honako hauek dira: • Trataera integrala zertan datzan • Ikas-egoeraren elementuen azalpena eta adibideak (bata, Lehen hezkuntzari begira; bestea, Bigarren hezkuntzari begira): ○ Markoa eta justifikazioa ○ Proposamenaren xedea ○ Curriculum argudiaketa ○ Helburu didaktikoak • Metodologia aktiboen azalpena eta adibidea • Ikas-egoerari lotutako jarduerak (hasierakoak, garapenekoak eta azken jarduerak) • Ebaluazioa prozesuak eta tresnak • Inplementaziorako irizpideak.
Mota	Ubidea



Formatua	online
Antolaketa	Mintegia: erkidegoa Ikastaroa: ikastetxeka
Ordu kopurua	Ubidearen ikastetxeko arduraduna: 20 Irakasleak: 15
Kronograma	Mintegia: 3 saio on-line, irailean, abenduan eta martxoan. Datak zehaztu gabe. Ikastaroa: Moodlegune bidez. Inplementazioa ikasgelan: urtariletik martxora irakasleek gelaratu behar dute ikastaroan sortuko duten ikas-egoera.
Ikastetxearen konpromisoak	Ubidearen ikastetxeko arduradunek: mintegi-saiotetan parte hartzea, irakasleen zereginetan bidelagun izatea, ikas-egoeraren inplementazioa bideratzea, eta inplementazioaren balorazioa egitea. Irakasleek: modulu bakoitzean ataza egitea, eta sortu beharko duten ikas-egoera geletan aplikatzea.

[↑Taula: bigarren begirada](#)

12. Hiru hizkuntzen trataera integratua

 Helburuak	Hizkuntzen tratamendu integratuan sakontzea eta irakas-praktikak hobetzen laguntzea, metodologia aktibo eta berritzaileak eskainiz: Hizkuntzen arteko ikas-egoera bat era integratuan sortzea eta geletan aplikatzea.
Edukiak	Hizkuntzen inguruko ekintza didaktiko-metodologikoak, ikuspuntu integratu batetik, praktikan jartzen dituzten proiektuak diseinatzeko prozedurari lotutako formakuntza da. Ildo honetatik garatuko diren jakintzei lotutako gaiak honako hauek dira: • Trataera integratua zertan datzan • Ikas-egoeraren elementuen azalpena eta adibideak (bata, Lehen hezkuntzari begira; bestea, Bigarren hezkuntzari begira): ○ Markoa eta justifikazioa ○ Proposamenaren xedea ○ Curriculum argudiaketa ○ Helburu didaktikoak • Metodologia aktiboen azalpena eta adibidea • Ikas-egoerari lotutako jarduerak (hasierakoak, garapenekoak eta azken jarduerak) • Ebaluazioa prozesuak eta tresnak • Inplementaziorako irizpideak
Mota	Ubidea
Formatua	online
Antolaketa	Mintegia: erkidegoa Ikastaroa: ikastetxeka
Ordu kopurua	Ubidearen ikastetxeko arduraduna: 20 Irakasleak: 15
Kronograma	Mintegia: 3 saio on-line, irailean, abenduan eta martxoan. Datak zehaztu gabe. Ikastaroa: Moodlegune bidez.



	Implementazioa ikasgelan: urtarritetik martxora irakasleek gelaratu behar dute ikastaroan sortuko duten ikas-egoera.
Ikastetxearen konpromisoak	Ubidearen ikastetxeko arduradunek: mintegi-saioetan parte hartzea, irakasleen zereginetan bidelagun izatea, ikas-egoeraren implementazioa bideratzea, eta implementazioaren balorazioa egitea. Irakasleek: modulu bakoitzean ataza egitea, eta sortu beharko duten ikas-egoera geletan aplikatzea.

[↑Taula: bigarren begirada](#)

13. Hezkuntza Baliabide Irekiak HBI (ExElearning bitartez)

 Helburuak	Exelearning programarekin Hezkuntza Baliabide Irekiak sortzeko formazio praktikoa
Edukiak	- HBI - HBlen metodologia - eXeLearning-en erabilera
Mota	Ubidea
Formatua	Arduraduna: hibridoa Klaustrokideak: online
Antolaketa	Erkidegoa/Ikastetxeka
Ordu kopurua	Ikastetxeko arduraduna: 30 Beste hartzaileak: 20
Data	Arduraduna: Azaroa-Apirila. Astelehen bat bi hilabetero. 2 orduko saioak Klaustrokideak: 2. hiruhilean
Ikastetxearen konpromisoak	Arduraduna: ikastaroa dagokien klaustro kideek baino lehenago egitea. Online ikastaroa ikastetxean dinamizatu eta tutorizatzea.

[↑Taula: bigarren begirada](#)

14. Teknopedagogia

 Helburuak	Teknologia hezkuntzan txertatzeko funtsezko gakoien inguruan hausnartzea, eredu desberdinak eta legedia ezagutuz, ikasle bezala konpetentzia digitala garatzeko ikastaroetan ikasitakoa praktikan jartzeko estrategiak definitzeko.
Edukiak	- DigComp esparrua - Teknologia hezkuntzan integratzeko ereduak - 77/2023 Dekretua (ikasleen konpetentzia digitala) Praktika
Mota	Ubidea
Formatua	Arduraduna: hibridoa Klaustrokideak: online
Antolaketa	Erkidegoa/Ikastetxeka
Ordu kopurua	Ikastetxeko arduraduna: 30 Beste hartzaileak: 20
Data	Arduraduna: Azaroa-Apirila. Astelehen bat bi hilabetero. 2 orduko saioak Klaustrokideak: 2. hiruhilean
Ikastetxearen konpromisoak	Arduraduna: ikastaroa dagokien klaustro kideek baino lehenago egitea. Online ikastaroa ikastetxean dinamizatu eta tutorizatzea.

[↑Taula: bigarren begirada](#)

15. Adimen artifiziala sentsibilizazioa

 Helburuak	Maisu-maistra eta irakasleak adimen artifizialaren inguruan trebatzea, eskaintzen dituen aukeretatik hausnartzeko.
Edukiak	- Zer da adimen artifiziala? Historia, adimen artifiziala eguneroko bizitzan eta gizarte-erronkak. - Zein teknologia dago adimen artifizialaren atzean? Ikasketa automatikoa eta sakona. - Adimen artifiziala hezkuntzan: aukerak eta erronkak ikastetxeetan.
Mota	Ubidea
Formatua	Arduraduna: hibridoa Klaustrokideak: online
Antolaketa	Erkidegoa/Ikastetxeka
Ordu kopurua	• Ikastetxeko arduraduna: 30 • Beste hartzaileak: 20
Data	Arduraduna: Azaroa-Apirila. Astelehen bat bi hilabetero. 2 orduko saioak Klaustrokideak: 2. hiruhilean
Ikastetxearen konpromisoak	Arduraduna: ikastaroa dagokien klaustro kideek baino lehenago egitea. Online ikastaroa ikastetxearen dinamizatu eta tutorizatzea.

[↑Taula: bigarren begirada](#)

16. E-Twinning (ikastetxe hasi berrientzat)

 Helburuak	Europako Hezkuntza Programarena den eTwinning egitasmoak ematen dituen aukera guztiak azaltzea . 1. Europako Hezkuntza markoa eta Erasmus+-programa ezagutzea 2. Proiektu globalizatueta eta eremuka lan egiteko plataforma ezagutzea 3. Metodologia aktiboak bultzatzeko prozesuak aztertzea 4. Plataforman aritzeko oinarritzko baldintzak ezagutzea
Edukiak	– Europako Hezkuntza helburuak eta eragiteko markoa – Europan ikasteko eta lankidetzan aritzeko aukerak – eTwinning: erraminta indartsua gure Curriculumaren oinarriak ezartzeko – Proiektu globalizatuak aurrera eramateko eta eremuka lan egiteko euskarria – Proiektuak egiten hasteko lehenengo pausuak ematea
Mota	Ubidea
Formatua	Erdipresentziala
Antolaketa	Erkidegoa
Ordu kopurua	Arduraduna: 20 Irakasleak: 15
Kronograma	HASIBERRIENTZAT (20 ordu) Urriak 2: Monografikoa (4 ordu) Otsailak 5: mintegia (2 ordu) Ikastaro tutorizatu online ikasturtean zehar (10 ordu) Ekainak 11: monografikoa (4 ordu)
Ikastetxearen konpromisoak	– Saio presentzialetan parte hartzea eta ikastaroaren atazak egitea. – Ikasitakoa ikastetxean zabaltzea eta praktikan jartzea



	– Beste ikastetxeekin esperientziak, jardunbide egokiak eta material didaktikoak partekatzea
--	--

[↑Taula: bigarren begirada](#)

17. E-Twinning (esperientziadun ikastetxeak)

 Helburuak	Europako Hezkuntza Programarena den eTwinning egitasmoak ematen dituen aukera guztiak azaltzea . 1. Europako Hezkuntza markoa eta Erasmus+-programa ezagutzea 2. Proiektu globalizatueta eta eremuka lan egiteko plataforma ezagutzea 3. Metodologia aktiboak bultzatzeko prozesuak aztertzea 4. Kalitatezko proiektu globalizatuen oinarriak identifikatzea eta praktikan jartzea
Edukiak	– Europako Hezkuntza helburuak eta eragiteko markoa – Europan ikasteko eta lankidetzan aritzeko aukerak – eTwinning: erraminta indartsua gure Curriculumaren oinarriak ezartzeko – Proiektu globalizatuak aurrera eramateko eta eremuka lan egiteko euskarria – Europako errekonozimendua jasotzeko aukera
Mota	Ubidea
Formatua	Erdipresentziala
Antolaketa	Erkidegoa
Ordu kopurua	Arduraduna: 20 ordu Irakasleak: 15 ordu
Kronograma	ESPERIENTZIADUNENTZAT (20 ordu) Urriak 2: Monografikoa (4 ordu) Otsailak 26: mintegia (2 ordu) Ikastaro tutorizatu ikasturtean zehar (10 ordu) Ekainak 11: Monografikoa (4 ordu)
Ikastetxearen konpromisoak	– Saio presentzialetan parte hartzea eta ikastaroaren atazak egitea. – Ikasitakoa ikastetxean zabaltzea eta praktikan jartzea – Beste ikastetxeekin esperientziak, jardunbide egokiak eta material didaktikoak partekatzea

[↑Taula: bigarren begirada](#)

18. Office 365 hezkuntzan (zehazteke)

[↑Eranskinak](#)

[↑Aurkibidea](#)



VI. ERANSKINA. Praktika-komunitateen eskaintza

Jarraian, ikastetxeak bere borondatez bat egin dezakeen praktika-komunitate profesionalei buruzko oinarrizko informakuntza ematen da. Praktika-komunitate bakoitzerako, informazio laburtu hau aurkezten da:

1. Komunitatearen xedea eta zer ikastetxe motari zuzenduta dagoen.
2. Komunitatearen helburuak
3. Komunitatearen ezaugarriak
4. Ikastetxe parte-hartzaileen konpromisoak
5. Hezkuntza Sailaren konpromisoak
6. Praktika-komunitatearen ekintzak: gauzatu beharreko ekintzen zerrenda aurreratua da.

PRAKTIKA-KOMUNITATE PROFESIONALAK:

1. HH mugimendu autonomia. (H)arituak.
2. LH Proiektu globalizatuak: Diziplinartekotasunean murgiltzen
3. *Jakintzagaiak DBHko 1. eta 2. mailetan integratzeko Praktika-komunitatea (aurrerantzean, EREMUAK LANTZEN komunitatea).*
4. KH kudeaketa aurreratua sarea
5. Amara Berri sarea
6. Eskola Txikiak sarea.
7. Eraldatzen

HH mugimendu autonomia. (H)arituak

Komunitatearen xedea	Mugimendu Autonomoan eskarmentua duten ikastetxeen artean gai jakin baten inguruan amakomunean produkzio bat sortzea.
Komunitatearen helburuak	• Mugimendu Autonomia ahalbideratzen duten eskoletako profesionalak behar dituzten lanabesak identifikatzea. • Mugimendu Autonomia ahalbideratzen duten eskoletako profesionalen elkar ezagutzea eta saretzea. • Mugimendu Autonomia ahalbideratzen duten eskoletako profesionalen ahalduntzea. • Mugimendu Autonomia ahalbideratzen duten eskoletako profesionalak Berritzegune Nagusiko kolaboratzaileen akonpainamendu, aholku, ekarpenak aintzat hartuta eskola ororentzat baliagarriak diren lanabesenak sortzea, garatzea. • Mugimendu Autonomia ahalbideratzen duten eskolen arteko lan kultura hau barneratzea.
Praktika-komunitatearen ezaugarriak	• Mugimendu Autonomia ahalbideratzen duten eskoletako profesionalen arteko lantaldea da. Bertan, Mugimendu Autonomia ahalbideratzeko elkarren arteko elikadura, kontrastea eta ezagutzak partekatuko dira. • Mugimendu Autonomia ahalbideratzen duten eskoletako profesional hauek errealitate anitzak eta ezberdinak bizi dituzte nahiz eta denek Mugimendu Autonomia ahalbideratu. Bakoitzak bere argi-ilunak, nahiak, beharrak eta eginikoa komunitatearen esku jarriko du. • Ikasturtean zehar oinarritzat izango den gaia, lehengo saioan erabakiko da demokratikoki. Hau da, Praktika Komunitate Profesionaleko lehen saioan auzolana egiteko gai batzuk jarriko dira mahai gainean. Behin hausnartuta antolaketa, kudeaketa eta helburua finkatuko dira. • Antolaketa eta ibilbidea berdina artekoa bada ere, Berritzegune Nagusiko kolaboratzaileek izango dute hauen balidazioaren giltza.
Parte-hartzen duten ikastetxeen konpromisoak	• Auzolanak berezko du, hartu eta eman. Hartu-emana. Bakoitzak duen dena eman eta duenetik eman. Hortaz, konpromisoa hitza ematea da. Hitza behin emanda, horri dagokion ardura, erantzukizuna berezkoa ditu. • Eskola bakoitzak bere errealitatearen arabera, pertsona bati edo batzuei auzolana egiteko baimena emango dio. Profesional honek edo hauek, bertaratzea, hitz emandako ardura, berak duena, eskolak duena eta bizi zein jasotzen duen eskolakideekin partekatzea. Eskolak horretarako gune eta uneak aurreikusi (UP txertatu) eta gauzatuko ditu.
Hezkuntza Sailaren konpromisoak	• Berritzegune Nagusiko aholkularien bitartez akonpainamendua eta aholkularitza ematea. • Eginiko lanaren balidazioa.
Edukiak/praktika komunitateko ekintzak:	• 2023-2024 ikasturtean Idatzia gai aukeratu zen. Azpitalde batzuk beraien lana bukatzeko dutenez, horiek hori bukatzea.



	2024-2025 ikasturte hasieran demokratikoki denon artean identifikatuko den gaiaren arteko lanketa. Taldeak, beharrek, nahiek, desioek identifikatuko dute denon onurarako beharrezkoak diren edukiak. .
Hartzaile potentziala	Mugimendu Autonomia ahalbideratzen duten ikastetxeentako profesionalak
Formatua:	Aurrez aurre
Antolaketa:	EAE mailan. Lekua zehazteke. Saio bakoitza lurralde ezberdinean izan daiteke
Ordu kopurua:	30
Kronograma	Urriak 17 eta 18 Abenduak 12 eta 13 Martxoak 13 eta 14

[↑Aurkibidea](#)

[↑Eranskinak](#)

LH Proiektu globalizatuak: Diziplinartekotasunean murgiltzen

Komunitatearen xedea	Ezagutza partekatutik abiatuta diziplinartekotasunari ekiteko antolaketan eta esku hartzean trebatzeko eta sakontzeko hezkuntza testuinguruak eskaintzea.
Komunitatearen helburuak	– Ikastetxeetan diziplinartekotasuna ezartzeko zein garatzeko prozesua erraztea. – Ikastetxeen artean esperientzia, material eta baliabide didaktikoen eta jardunbide egokien trukea sustatzea. – Laguntza eta aholkularitza ematea praktika-komunitate baten bidez, hezkuntza esku-hartzea diziplinartekotasunaren ikuspegitik garatzeko. – Ikaskuntza partekatua eta irakasleen etengabeko prestakuntza bultzatzea.
Praktika-komunitatearen ezaugarriak	– Irakasleen arteko lantalde bat izango da, eta, bertan, diziplinartekotasuna garatzeko esperientziak, ezagutzak eta baliabideak partekatuko dira. – Komunitatean parte hartzea borondatezkoa izango da ikastetxeentzat, baina konpromisoa hartu ondoren, ezarritako konpromisoak bete beharko dituzte. – Komunitateko kideen artean auto-antolaketa eta erantzukidetasuna sustatuko dira. Berritzegune Nagusiko aholkularien laguntza izango du, baina berdinaren arteko lankidetzat eta ikaskuntza lehenetsiko dira.
Parte-hartzen duten ikastetxeen konpromisoak	– Ordezkarri bat izendatzea (BeA, BODI, edo irakasle izendatua), praktika- komunitatearekin koordinatuko dena eta bertan hartutako konpromisoak ikastetxean ezartzen joatea. – Komunitatearen jardueretan aktiboki parte hartzea, hala nola truke-saioetan, prestakuntza- saioetan eta eskolak behatzeko saioetan, besteak beste. – Esperientziak, jardunbide egokiak eta material didaktikoak partekatzea Praktika Komunitateko beste kide batzuekin. – Ikastetxeko Urteko Prestakuntza Planean diziplinartekotasunari ekiteko prestakuntza-jarduerak, edo gogoeta uneak eskaintzea.
Hezkuntza Sailaren konpromisoak	– Berritzegune Nagusiko aholkularien bitartez laguntza eta aholkularitza ematea. – Praktiketako komunitateko parte-hartzaileentzako prestakuntza- eta ikaskuntza-jarduerak antolatzea.
Edukiak/praktika komunitateko ekintzak	- Esperientziak trukatu eta komunikatzeko gune irekien antolaketa. - Prestakuntza-saioak, tailerrak, behaketa-jardunaldiak eta praktika pedagogikoen azterketa. - Diziplinartekotasunaren ikuspegitik material didaktikoak eta hezkuntza-baliabideen ekoizpena. - Ikastetxe batek diziplinartekotasuna arrakastaz ezartzeko jarraitu ahal izango duen ibilbide- orriaren ekoizpena.



Hartzaile potentziala	Proiektu interdiziplinarretan lanean dagoeneko ari diren edo interesa duten Lehen hezkuntzako maisu-maistrentzat da.
Formatua	Erdipresentziala
Antolaketa	Bi ibilbide (oinarrizkoa eta garatu-aurreratua). GINARRIZKOA: Hasierako etapan dauden ikastetxeentzat diseinatuta dago ibilbide hau; edo/eta diziplinartekotasunera saltoa eman nahi dutenentzat. Ikastetxe horientzat orientazio eta laguntza handiagoa proposatzen da, hala nola, oinarri teorikoan, definizioan, alderdi metodologiakoan, curriculum-plangintzan, diziplinarteko proiektuen diseinuan... Ibilbide horren helburu nagusiak hauek izango dira: - Diziplinarteko ikuspegira gerturatzea - Diziplinartekotasunaren oinarri teorikoak eta metodologikoak eskaintzea - Curriculum elementuak aztertzea eta arloen arteko integrazioa sustatzea - Hasierako plangintzaren diseinuan laguntzea diziplinartekotasuna martxan jartzeko. GARATUA-AURRERATUA: Diziplinarteko proiektuak planifikatzen eta inplementatzen esperientzia duten ikastetxeak, baina hobekuntzak behar dituztenak ezarpenean, garapenean eta ebaluazio hezitzaile eta hezigarrian. Ibilbide horren helburu nagusiak hauek izango dira: - Diziplinarteko proiektuen arabera egindako lanaren praktika pedagogikoak sendotzea. - Hezkuntza esku hartze konpetentzialen diseinuan parte hartzea. - Curriculumaren integrazio eraginkorra ezartzek gogoeta sustatzea. - Jarraipenerako eta etengabeko hobekuntzarako estrategien garapena sustatzea.
Ordu kopurua	- Oinarrizkoa: 4 saio. 12 ordu. - Garapen-aurreratua: 4 saio. 12 ordu. - 4 orduko saio bateratua
Kronograma	Zehazteke

[↑Aurkibidea](#)
[↑Eranskinak](#)



Amara Berri sarea

Komunitatearen xedea	Amara Berri Sarea: HH-LH-DBH.
Komunitatearen helburuak	Amara Berri Sarea mantentzeko egiturak bermatzea, elkarlanean laguntza eta aholkua emanez.
Praktika-komunitatearen ezaugarriak	Ikastetxeen arteko lan taldea; LH eta DBHn eremuetan lanean esperientzia partekatzea.
Parte-hartzen duten ikastetxeen konpromisoak	Bileretan adostutako helburuak betetzea. Sarea beste ekarpenekin aberastea.
Hezkuntza Sailaren konpromisoak	- Berritzegune Nagusiko aholkularien bitartez laguntza eta aholkularitza ematea. - Praktiketako komunitateko parte-hartzaileentzako prestakuntza- eta ikaskuntza-jarduerak antolatzea.
Formazioaren edukiak/praktika komunitateteko ekintzak	Jardunaldiak. Zuzendaritza Taldeen bilerak. Topaketak. Mintegiak. Sareko ikastetxeen arteko bisitak. Sarekoak ez diren Hezkuntza eragileen bisitak. -EHUrekin Ikerketarako kolaborazioa. Informazio eskaera anitzi erantzuna.
Hartzaile potentziala	Amara Berri Sareko kideak diren ikastetxeak
Formazio mota edo ibildibidea	- Jardunaldia: Sareko ikastetxeetan berriak diren irakasleak. - Mintegia (HH, BeA, Zientzia, Hizkuntzak, Arte, Musika, Ingelera,Aholkulariak,...) - Topaketa (Zuzendaritza Taldeak, Departamentu edo eremuka) - Monografikoak, Mintegietako gai konkretuen inguruan (Ebaluazioa, testuinguru bakoikatzaren hausnarketa,...)
Formatua	Erdipresentziala
Antolaketa	- Zentralizatua - Lurraldeka, behar izan denean (BeA).
Ordu kopurua	Zehazteke
Kronograma	- Jardunaldia: Sareko ikastetxeetan berriak diren irakasleak, ikasturte hasieran behin, aurretik eskatutako ikastetxeetan. - Zuzendaritza Taldeen bilerak, hilean behin. - Topaketak, ikasturtean bitan, hasieran eta erdian, Departamentu bakoitzeko. - Mintegiak: HH bi hilabetero; BeAarrak, azken bi urtetan maiztasun handiz; beste Mintegiak, ikasturtean gutxienez behin eta beharren arabera.

[↑Aurkibidea](#)
[↑Eranskinak](#)

KH kudeaketa aurreratua sarea

Xedea:	Ikastetxearen kudeaketarako aukera berriak aztertzea eta ikastetxeetan inplementatzea
Helburuak:	Ikastetxeek ahalik eta kudeaketa eraginkorrena egitea bide desberdinak eginez ... – Kudeaketa Aurreratuaren eredua zabaldu – Prozesuka lan egitearen abantailak aztertu – Praktika eraginkorrak partekatu – Lidergo partekatua garatu – Ikastetxearen antolaketa egokia bermatu – Ikastetxeen arteko elkarlana bultzatu – Ikuspegi estrategikoa ziurtatu – Elkarlan koherentea gauzatu ... dituzten ikasleei ahalik eta aukera zabalena eskaintzeko beraien ikasketa prozesuan
Ezaugarriak:	Ikastetxeek, aukeratutako ibilbidea garatuz eta antolatutako eskaintza koherente eta lan eraginkorraren bitartez, baliabide eta pertsonen kudeaketa eraginkorraren bidea egitea interes berdina duten ikastetxeekin batera.
Ikastetxe parte-hartzaileen konpromisoak:	– Aukeratutako lan ildoetan parte hartzea. – Praktika eraginkorrak eskaini edota jasotzea – Sortutako materialak partekatzea – Sarekideen artean aholkularitza eskaintzea
Hezkuntza Sailaren konpromisoak	– Berritzegune Nagusiko aholkularien bitartez laguntza eta aholkularitza ematea. – Praktiketako komunitateko parte-hartzaileentzako prestakuntza- eta ikaskuntza-jarduerak antolatzea.
edukiak / ekintzak:	– Hiru hilabeteen behin Sarekideen bilkura (ohiko bilera) – Bilkuren artean “azpitaldeen” lana; eskainitako ildoak: ▪ Ikastetxearen kudeaketarako autodiagnostikoa – Ikastetxearen kudeaketarako kontrastea – Ikastetxearen Plan Estrategikoa sortu / berriztu – IHP-ren eguneraketa. – Ikastetxeko prozesuak sortzen, eguneratzen eta berrizten. – Ikastetxeko prozesuak “KH” aplikazioan txertatu – Urtean bi aldiz Praktika eraginkorrak (1.- Teoriatik Praktikara – Urtarrila/otsaila - 2.- BerritsuTaberna – Maiatza -) – Urtean zehar “Aholkularitza zuzena” holako gaietan: 1.- Klaustroaren kohesioa eta zuzendaritza erreleboa. 2.- KH Sarearen lanaren azalpena klaustrokideen aurrean.
Nori zuzendua:	Kalitate Hezkuntza Sarean dauden ikastetxeak
Formazio ibilbidea	– Ohiko bilerak (Sarearen lana + Berrikuntzarako bide berriak aztertzen) – Azpitaldeen lana (Ikastetxeko beharrei begira + beste ikastetxeen elkarlana + Berritzegune Nagusiaren aholkularitza) – Plan estrategikorako gida + Moodel ikastaroa



	– Praktika eraginkorrak (Zuzenean ikusi + Proposamen berriak jaso) – Kudeaketa Aurreratuaren “A” diploma eta Euskalit erakundearen ibilbide eskaintza. – Ikastetxearen kudeaketa egoera aztertzea “Autodiagnostikoaren” bitartez
Eskaintzaren formatua:	– Erdipresentziala
Antolaketa:	– Ohiko Bilerak Arrasate BHI – Azpitaldeen lana (Taldeen aukeratutako egoitzan) – Aholkularitza Zuzena: Norberaren ikastetxean – Kudeaketa Aurreratuaren ibilbidea Euskalitekin batera. – Praktika eraginkorrak: – Teoriatik Praktikara (Eskaintza egiten duen ikastetxean) – BerritsuTaberna (Urtero Lurralde batean – 24/25 Ikasturtean Araban)
Ordu kopurua:	– Ohiko bilerak: 20 – Azpitaldeak: 15 – Kontraste bidea: 25 – Aholkularitza zuzena: 10 – Praktika Eraginkorrak: ○ Teoriatik Praktikara: 15 ○ BerritsuTaberna: 10
Kronograma:	Zehazteke

[↑Aurkibidea](#)
[↑Eranskinak](#)



**Jakintzagaiak DBHko 1. eta 2. mailetan integratzeko praktika-komunitatea
(aurrerantzean, EREMUA K LANTZEN komunitatea).**

Komunitatearen xedea	EREMUA K LANTZEN komunitatea Hezkuntza Sailaren ekimena da, eta DBHko 1. eta 2. mailetako lana diseinatzeko, ezartzeko, jarraipena egiten eta ebaluatzen laguntzea du helburu. Proposamen hori praktika-komunitate gisa garatuko da, eta, bertan, beren borondatez bat egiten duten ikastetxeek lanaren inguruko esperientziak, ezagutzak eta eremuen araberrako praktika onak partekatu ahal izango dituzte
komunitatearen helburuak	– Ikastetxeei eremuetako lana diseinatu, ezarri, jarraitu eta ebaluatzen prozesua erraztea, prozesua arrakastaz eta indarrean dagoen araudiaren araberr egin dadin. – Ikastetxeen artean esperientzia, material eta baliabide didaktikoen eta jardunbide egokien trukea sustatzea. – Laguntza eta aholkularitza ematea praktika-komunitate baten bidez, lana eremuen araberr garatzeko. – Ikaskuntza partekatua eta irakasleen etengabeko prestakuntza bultzatzea metodologia berritzaileetan.
Praktika-komunitatearen ezaugarriak	– Ikastetxeen arteko lantalde bat izango da, eta, bertan, eremuen araberrako lanarekin zerikusia duten esperientziak, ezagutzak eta baliabideak partekatuko dira. – Komunitatean parte hartzea borondatezkoa izanen da ikastetxeentzat, baina konpromisoa hartu ondoren, ezarritako konpromisoak bete beharko dituzte. – Komunitateko kideen artean auto-antolaketa eta erantzunkidetasuna sustatuko dira. Berritzegune Nagusiko aholkularien laguntza izango dute, baina berdinen arteko lankidetzeta eta ikaskuntza lehenetsiko dira.
Parte-hartzen duten ikastetxeen konpromisoak	– Ordezkarri bat izendatzea (BeA edo irakasle hautatua), praktika-komunitatearekin koordinatzeko eta ikastetxeko eremuen araberrako lanaren jarraipena egiteko. – Komunitatearen jardueretan aktiboki parte hartzea: truke-saioetan, prestakuntza-saioetan eta eskolak behatzeko saioetan, besteak beste. – Esperientziak, jardunbide egokiak eta material didaktikoak partekatzea komunitateko beste kide batzuekin. – Ikastetxeko formakuntza-planeari, komunitatea ezartzeari lotutako gaiei buruzko prestakuntza-jarduerak sartzea.



Hezkuntza Sailaren konpromisoak	– Berritzegune Nagusiko aholkularien bitartez laguntza eta aholkularitza ematea. – Eremuen arabera lan egiteko baliabide eta material didaktikoak ematea ikastetxeei; irakasleei ezagutza-eremuetako programazio didaktikoak garatzeko orientabideak emango dizkieten curriculum-materialak ematea. Horretarako, besteak beste, jarduketa hauek egingo dira: ○ Eremuen arabera lanean esperientzia duten ikastetxeek egindako materialak hautatzea eta hobetzea, programazio-ereduei, proiektuen arabera lan-proposamenei, unitate didaktiko espezifiko eta ebaluatzeko baliabideak eskaini. ○ Espazio birtual bat sortzea; bertan, irakasleek aukera izango dute ikastetxeen arteko komunikazio-foroetara sartzeko eta lanerako zein antolakuntzarako materialak partekatzeko. – Praktiketako komunitateko parte-hartzaileentzako prestakuntza- eta ikaskuntza-jarduerak antolatzea. – Proiektuaren garapenaren eta parte hartzen duten ikastetxeetan duen eraginaren aldizkako jarraipena eta ebaluazioa egitea, hezkuntza-ikuskaritzarekin eta ISEI-IVEIrekin koordinatuta.
Edukiak/praktika komunitateko ekintzak	Praktika-komunitateetako jarduerak: – Esperientziak trukatzeko eta komunikatzeko gune irekiak ezarri. – Prestakuntza-saioak, tailerrak, behaketa-jardunaldiak eta praktika pedagogikoak aztertu. – Eremuen arabera material didaktikoak eta hezkuntza-baliabideak garatu. – Ikastetxe batek eremuen arabera lana arrakastaz ezartzeko jarraitu ahal izango duen ibilbide-orria garatu. <u>1. EREMUAK LANTZEN komunitatearen barruko hainbat ibilbide:</u> 1. Praktika-komunitate profesional beraren barruan, eremuen arabera lana ezartzeko ibilbide bereziak garatu beharra dago. 2. DBHko 1. eta 2. Mailan, eremuen arabera egindako lanaren ezarpena nahiko berria denez, eta ondorioz, oro har, ikastetxe gehienek esperientzia mugatua dutenez, hiru ibilbide proposatzen dira.



3. Praktika-komunitatearen barruan hiru ibilbide desberdin ezartzeko ideia, eremuen arabera lanaren ezarpenean zentroek duten garapen-mailaren arabera, laguntza eta prestakuntza zentro bakoitzaren behar espezifikoetara egokitzeko beharrean oinarritzen da. Hiru ibilbide horiek kontuan hartzen dituzte metodologia pedagogiko horren inplementazioan izandako esperientzia-, konpromiso- eta aurrerapen-mailak. Jarraian, hiru ibilbideen ezaugarriak zehazten dira:

1. Oinarrizko ibilbidea:

Lana eremuen arabera ezartzeko hasierako etapan dauden ikastetxeentzat diseinatuta dago ibilbide hau; hau da, oraindik ez dute planifikatu lana eremuen arabera egitea.

Litekeena da ikastetxe horiek orientazio eta laguntza handiagoa behar izatea funtsezko alderdietan, hala nola curriculum-plangintzan (eremuaren eta curriculumaren definizioa), diziplinarteko proiektuen diseinuan eta konpetentzien ebaluazioan.

Ibilbide honen helburu nagusia da eremukako lanaren oinarri teorikoak eta metodologikoak eskaintzea, hasierako plangintzan laguntzea, curriculum integratzeko tresnak ematea eta ikasgaien arteko lankidetzaren sustatzea.

2. Tarteko ibilbidea:

Ibilbide hau eremukako lana diseinatzeko hasi diren baina oraindik ikasgeletan ezarri ez duten ikastetxeei zuzenduta dago.

Esperientzia izan dezakete diziplinarteko proiektu puntualak planifikatzeko eta inplementatzeko, baina hobekuntzak behar dituzte ezarpenean, jarraipenean eta ebaluazioan, edo gaien arteko koordinazioan.

Ibilbide honen helburu nagusia da eremukako lanaren praktika pedagogikoak sendotzea, konpetentzien ebaluazioa hobetzea, curriculumaren integrazio eraginkorra sustatzea eta jarraipenerako eta etengabeko hobekuntzarako estrategiak garatzea.

3. Ibilbide aurreratua:

Ibilbide hau eremukako lanaren inplementazioan nabarmen aurrera egin dutenei bideratuta dago, DBHko mailaren batean dagoeneko praktikan jarri dutenei, baina oraindik alderdi



	espezifikoa hobetu behar dituztenei. Ikastetxe horiek nolabaiteko segurtasuna bilatzen ari dira lana eremuka aritzeko, material eta baliabide didaktikoak hobetzeko, ikasleen ebaluazio formatiboa eta kalifikazio ondorengo errotzeko mekanismoak eta prozedurak hobetzeko, metodologiak hobetzeko, hala kodozentzian, lan kooperatiboan... Ibilbide honen helburu nagusia da berrikuntza pedagogikoa sustatzea, eragin handiko diziplinarteko proiektuak garatzea, ebaluazio formatiboa eta batutzailea indartzea, hezkuntza-ikerketa sustatzea eta jardunbide egokiak partekatzea. 4. Hiru ibilbide desberdin sortzeak aukera emango du, eremukako lana ezartzean, ikastetxe bakoitzaren behar espezifikoei modu eraginkorragoan erantzuteko. Horrek bermatzen du laguntza, prestakuntza eta baliabideak behar bezala egokitzen direla zentro bakoitzaren garapen-mailara eta jomugetara, eta, horrela, praktika-komunitatearen inpaktua eta eraginkortasuna maximizatzen dira. 5. Hiru ibilbideek behar besteko iragazkortasuna izango dute, ikastetxeen beharrian aldakorrei erantzun malgua eta moldagarria emango zaiela bermatzeko, eremukako lana arrakastaz ezartzeko bidean.
Hartzaile potentziala	Praktika-komunitate hau DBHko 1. eta 2. mailetan eremuka ari diren edo aritzeko interesa duten bigarren hezkuntzako ikastetxeentzat da.
Formatua	Semipresentziala
Antolaketa	Zehazteke
Ordu kopurua	Zehazteke
Kronograma	Zehazteke

[↑Aurkibidea](#)
[↑Eranskinak](#)



Eskola Txikiak sarea

Komunitatearen xedea	Eskola Txikiak dira landa eremuko herri eta auzo txikietako eskola publiko eta euskaldunak. Hezkuntza ikuspegi bat partekatzen dugu eta hori egikaritzeko lanean dihardugu. Praktika komunitate honen helburua beraz, partekatzen dugun hezkuntza ikuspegi honetan sakontzea eta hauek eguneroko praktikara eramateko bideak elkarrekin lantzea da.
komunitatearen helburuak	- Eskola Txikietan formaziorako ditugun beharrak diagnostikatzea eta horien araberrako formazio planak pentsatzea eta antolatzea. - Eskola Txikien sarea osatzen dugun eskolen arteko harremana sendotzea eta elkarrekintzarako eta kooperaziorako bideak pentsatzea eta antolatzea. - Eskola Txikiok amankomunean ditugun beharrak aztertzea eta horiek asetzeko bideak elkarrekin pentsatu eta proposamenak egitea. - Eskoletan egiten den praktikaren eta gure hezkuntza ikuspegiaren arteko kontrasteak eta loturak markatzea, zertan eta zertarako ari garen definitzea, alegia. - Eskola txikietako hezkuntza ikuspegia ikastetxean lantzeko bidelaguntza sustatzea. - Eskolako praktika metodologikoen inguruko hausnarketaren bitartez, ikas prozesuak hobetzeko egin beharreko hobekuntza eta doikuntzak bultzatzea.
Praktika-komunitatearen ezaugarriak	Eskola Txikietan urteak daramatzagu, sarean eta elkarlanean lan egiten, gaur egun garena eskolen artean egindako lanaren fruitua da eta orain arteko ibilbidea aintzat hartuz Eskola txikien elkarlanerako eta elkarlaguntzarako bideetan sakontzea da gure asmo eta nahia. Eskola Txikien sarea, ezaugarri jakin batzuk eta hezkuntza ikuspegi zehatz bat partekatzen duten eskolen lantalde bat da. Bertan parte hartzen duten eskolek esperientziak, ezagutzak eta baliabideak partekatzen dituzte eta amankomunean eduki ditzakegun beharrei elkarrekin erantzuten ahalegintzen gara. Eskola Txikien Sarea osatzen duten guztiak daude deituta praktika komunitate honetan borondatez parte hartzera. Baina behin parte hartzeko konpromisoa hartuta, ezarritako konpromisoak bete beharko dituzte. Formazio saioak Eskola Txikien koordinazio taldeko kideek dinamizatu eta gidatuko dituzte. Honetaz gain, eskolen arteko lankidetzak eta elkarlan autonomoa ere sustatuko dira.



Parte-hartzen duten ikastetxeen konpromisoak	- Mintegi hauetan parte hartuko duen ordezkari bat edo batzuk izendatzea eta mintegian aktiboki parte hartzea. - Mintegietan landutakoa eskoletara eramatea eta klaustroan dagokion lanketa egitea. - Mintegian definitzen diren, proposamenak eskolan martxan jartzen ahalegintzea - Norbere eskolako dokumentuak, baliabide didaktikoak, esperientziak, praktikak... sarekideekin partekatzea
Hezkuntza Sailaren konpromisoak	- Sarearen koordinatzaileen bitartez laguntza eta aholkularitza ematea. - Praktiketako komunitateko parte-hartzaileentzako prestakuntza- eta ikaskuntza-jarduerak antolatzea. - Praktika komunitatearen jarraipena eta ebaluazioa egiteko tresnak, orientabideak eta baliabideak prestatzea.
Formazioaren edukiak/praktika komunitatetako ekintzak	2024-2025 ikasturteko mintegietan Eskola Txikiek partekatzen dugun hezkuntza ikuspegitik jorratuko diren eduki eta ekintzak hauek izango dira: - Eskola txikietako hezkuntza ikuspegia eskolan lantzeko bidelaguntza. - Eskolara etortzen diren maisu-maistra berrientzako harrera plana eta bidelaguntzarako estrategiak. - Maisu-maistrentzako barne formazio saioak antolatu eta gidatzeko estrategiak. - Komunitatearentzako formazio saioak antolatu eta gidatzeko estrategiak - Irakasleen funtzio eta rolen inguruko hausnarketa. - Eskola Txikien arteko elkartrukaketa eta zabalkundetik jasotakoa eskolan nola jorratu. - Ikasle guztiak irakasle guztion ardura izan daitezen estrategiak, antolaketa eta ekintzen diseinua. - Adin aniztasuna bultzatzeko antolaketa eta estrategiak - Denbora eta espazioaren ikuspegia eta antolaketa - Ebaluazioa: nork, zer, zertarako eta nola. - Eskolaren behar eta erronken detekzioa eta hauei erantzuna emateko plana. - Eskolako formazio plana.
Hartzaile potentziala	Mintegi hauek Eskola Txikien Sareko kide diren ikastetxeak
Formazio mota edo ibilbidea	Mintegia: hilen behin, 3 orduko saio bat. Ikasturtean 10 saio.
Formatua	Aurrez aurre



Antolaketa	- Bizkaia eta Araban lurraldeka - Gipuzkoan ikastetxe taldeka
Ordu kopurua	30 ordu
Kronograma	Hilero (irailetik ekainera) hiru orduko saio bat egingo da: Arabian asteartetan 9:30-12.30 Bizkaian asteazkenetan 10:00-13.00 Gipuzkoko hiru taldeetan: astelehenetan 9:30-12:30

[↑Aurkibidea](#)[↑Eranskinak](#)



Eraldatzen

Xedea	Kalteberatasun egoeran dauden ikastetxeak, Talde Teknikoaren orientazioa eta laguntzarekin, beraien hobekuntza plana sendotzea eta indartzea sarean elkarlanean garatuz, ikasle guztiek beren prestakuntza-prozesua arrakastaz amaitzeko, ez bakarrik akademikoki, baita pertsonalki ere, beren konpetentziak ahalik eta gehien gara ditzaten.
Helburuak	Helburu nagusia, ikastetxe hauetako hezkuntza-errealitatea hobetzea da: – Ikaskuntzaren eskola-emaizak hobetzea. – Ikastetxean bizikidetzaren positiboa bultzatzea. – Ikasleen ongizate emozionala hobetzea. – Ikasturtea promozionatzen ez duten ikasleen kopurua murriztea. – Eskola-absentismoa murriztea. – Egoera zaurgarrian dauden ikasleak ahaldundzea. – Eredu inklusiboak garatzea, metodologia aktibo eta parte-hartzaileak erabiliz, aniztasunari erantzuna emateko. – Profesionalen artean, lan kooperatiboaren kultura eta elkarrekintza sustatzea. – Ebaluazio sistematikoa finkatzea. Ebaluazio eraginkorra egitea: ebidentzietan oinarrituta, estrategiak eta ebaluazio-tresnak sistematizatuz. – Hezkuntza formala, ez-formala eta informala uztartzea (ekintza osagarriak, eskolaz kanpokoak, zerbitzuak...)
Ezaugarriak	– Kalteberatasun egoeran dauden ikastetxeetako ikasleak eta familiak. – Interes komuneke talde bat izatea. – Espazio partekatua eraikitzea. – Ikaskuntza foroa izatea. – Komunitatean aniztasuna sustatzea. – Praktikaren bidez denon artean ezagutza eraikitzea. – Programaren pertenezia sentimendua bultzatzea. – Koordinazioa eta sinergia sortzea. – Praktika-komunitate arrakastatsuak sortzeko estrategia eraginkorrak erraztea. – Etengabeko prestakuntza jasotzea berrikuntza eta iritziak trukatzuz azpisareko ikuspegiak zabaltzeko.
Parte-hartzen duten ikastetxeen konpromisoak	1. Ikastetxean egonkortasuna duten irakasleen artean Eraldatzen programaren arduradun bat izendatzea, honako eginkizun hauek betetzeko: Programa honek, hezkuntza-komunitate osoaren onarpena eta parte-hartzea eskatzen du. Hori dela eta, Klaustroaren %60ak, gutxienez, eta OOGk onartu beharko dute. – Ikastetxean programa dinamizatzea. – Ikastetxean zehaztutako talde eragilearen bilerak zuzentzea.



	– Eraldatzen sarearen aldizkako bileretan parte hartzea, baita antola litezkeen prestakuntza-saio espezifikoetan ere. – Eraldatzen programako talde teknikoko arduradunekin harreman arina izatea. – Eraldatzen sareak proposatzen dituen ekintzak ezartzea, ikastetxeko talde eragilearekin koordinatuta. – Ikastetxeko irakasleentzako prestakuntza diseinatzen, kudeatzen eta ematen laguntzea. – Ikastetxean ezartzen diren palanka-ekintzak tutorizatzea. – Administrazioak eskatzen dituen datuak biltzea eta ematea. – Programa honetara bideratutako partidaren kudeaketa ekonomikoan laguntzea (fakturen kontrola, ordainketen frogagiriak...). 2.Hobekuntza Plan Estrategikoa diseinatu, inplementatu, jarraitu eta ebaluatu. 3.Sarean, partaideek konpromisoa eta ahalegin aktiboa egin palankei buruzko baliabideak sortuz, garatuz, bilduz eta partekatuz, ezagutzak lankide guztiei mesede egin diezaien. 4. Sarean partekatzen diren errekurtsoekin Palanka Jarduera Pana elikatzea. 5.-Sarea optimizatu eta onura ziurtatu. 6.-Kontratu-programa bete.
Hezkuntza Sailaren konpromisoak	– Talde teknikoaren (Berritzegune Nagusia, Ikuskaritza eta ISEI-IVEI) laguntza jasotzea eta aholkularitza ematea. – Praktiketako komunitateko parte-hartzaileentzako prestakuntza- eta ikaskuntza-jarduerak antolatzea. – Programaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko tresnak, orientabideak eta baliabideak prestatzea.
Edukiak/praktika komunitateko ekintzak	– Hobekuntza Plana – Palankei buruzko prestakuntza. – Programari dagozkion dokumentazioa eta prozedurak. – Datu, tresna eta espazioen kudeaketa – Tutoretzak. – Ikastetxeetara bisitak. – Praktika onak – Praktikari buruzko hausnarketa eta alderaketa – Ebaluazio sistematikoa. – Hobekuntzarako ikuspuntua eta jarrera.
Hartzaile potentziala	Konplexutasun indizea altua edo oso altua daukaten ikastetxeak Hezkuntza Sailaren baremoak horrela badio.



Arduraduna:	Talde Teknikokoaren arduraduna
Komunitate mota edo ibilbidea	– Mintegia – Monografikoak – Azpisareak – Tutoretzaka – Ikastetxeetan bisitak
Formatua	Semipresentziala
Antolaketa	– Zentralizatua – Lurraldeka – Azpisareka – Tutoritzaka – Ikastetxeka
Ordu kopurua	Zehazteke
Kronograma	1.Eskarmetudun ikastetxeak: – 2.Faseari buruzko informazio saioak – Azpisare ezberdinetan banandu 2.Ikastetxe berriak: – Iraila: formakuntza trinko – Urria: aurrekontuak – Abendu-urtarrila: Palanken jarraipena – Maiatza-Ekaina: ebaluazioa

[↑Aurkibidea](#)
[↑Eranskinak](#)